

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXVI. edizioa

2 0 1 4



ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

~~XXVI~~.edizioa

2 0 1 4

*Mig
Rafael
Koleta*

Fotokonposaketa eta Fotomekanika:

KAHLOMEDIA S. KOOP.

Inprimatzailea:

CALIMA S.L.

Lege Gordailua: BI-727-2014

Liburu honek Bilkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jaso ditu.



Urtero aurkeztu izan dira hainbat eta hainbat ipuin Mikoleta Ipuin Lehiaketara baina aurtengo edizioak orain artekoak gainditu ditu askoz; izan ere, 1.263 izan dira aurten aurkeztutakoak. Horrez gain, D kategorian, 221 ipuinekin, epai-mahaikideek irakurritako ipuin kopuruak gorakada nabarmena izan du, iazko edizioko kopurua bikoiztuz.

Zorionak, beraz, irabazleoi, ipuin-lehiaketa honetara aurkeztu eta saria lortzeagatik. Eskerrik asko, zelan ez, lehiaketa irabazten saiatu diren gainontzeko guztiei. Eta gogoan izan: bizitza honetan, parte hartzea izaten da saririk onena.

Bilboko Udaleko ipuin-lehiaketa irabazi duzue, eta ziur nago momentu hau bizitza osoan gogoratuko duzuela. Baina gogoratu ezazue bizitza hau ez dela ipuina eta, benetako pertsonen istorioak ikasiaz, ahaleginaz eta lan eginaz idazten direla.

Beraz, badakizue: asko ikasi, aurrera segi eta sari asko irabaz ditzazuela!

Ibon Areso
Bilboko Alkatea

Sariak

Bilboko Udaletxean, bi mila eta hamalauko martxoaren hamahiruko arratsaldeko seietan batuta,
hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XXVI. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak,
aurkeztutako 1263 ipuinak aztertu ondoren:

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. AKER ZURI,
Izaro Hurtado Mata,
Zamakola-Juan Delmas HLHI.
2. PELUTXE BATEN BIZITZA
Martina Villate Martínez,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.
3. GERNIKAKO ISKANBILA,
Ainhize Tejedor Martinez,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. OROITZAPEN BILA,
Nerea Erdozain Toribio,
Birjinetxe HLHI.
2. JENDEAK EZ ZUELA TOLERANTZIARIK,
Lili Adela Aldekoetxea López-Linares,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.
3. NI NORVEGIAN,
June Landa Sagarduy,
Birjinetxe HLHI.

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. IRRAZIONALEN ETA PERFEKTUEN ARTEKO LEHIA,
Alba Hernández Costoya,
Karmelo Ikastola-Solokoetxe BHI.
2. DIFERENTEA NAIZ,
June Sarasua Rivera,
Karmelo Ikastola-Solokoetxe BHI.
3. AMBROSIOREN BIZITZA,
Gontzal Sagastabeitia Intxaurbe,
San Adrian BHI.

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. URTARRILAK 27,
Jone Askaiturrieta Ostolaza,
Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI.
2. 134. BEZEROA,
Felipe Angel Salazar,
Ibaigane HLBHIP.
3. AMAMA,
Sonsoles Pacheco Larrucea,
Ikasbide HLBHIP.

ARGITARAGARRIAK

A KATEGORIA:

- LEONARDO KATUA, Iratxe Urrutia Sordo, Kirikiño Ikastola HLBHIP.
- ANTHONYREN ISTORIOA, Naroa Torrealday Salvador, Kirikiño Ikastola HLBHIP.
- DENBORAREN BIDAIA, Iker Danoz Corral, Luis Briñas-Santutxu HLHI.

B KATEGORIA:

- AMETSAK EGIA BIHURTU DAITEZKE, Leire Inclán Mora, Kirikiño Ikastola HLBHIP.
- DAVID ETA “TXIMELETA BEGIZTA”, Haizea Garcia Villanueva, Uribarri HLHI.

C KATEGORIA:

- IRAGANAKURRATZEA KUZTENDITU, Beñat Ribacoba Gómez, Miguel de Unamuno BHI.
- JUANTXO TXIKIA, Eneko Flecha Minguez, Miguel de Unamuno BHI.
- SAGU TRANPA, Stefan Moragues Benito, Esclavas SC-Fátima HLBHIP.

D KATEGORIA:

- MURGILDURIK, Nerea Martínez Alvarez, Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI.
- CIAO BABAKAR!, Maider Zalbidea Pardo, Deustuko Ikastola IPI.
- ZORAMENA, Iñaki Erkizia Ateka, Artxandape Ikastola HLBHIP.

Eta batzarra bukatutzat ematen da, Bilbon, bi mila eta hamalauko martxoaren
hamahiruko zazpian.

Sabin Anuzita Pomposo epaimahaiburua

Lutxo Egia, epaimahaikidea

Igone Etxebarria, epaimahaikidea

Irene Berro, epaimahaikidea

Irati Malatsetxebarria, epaimahaikidea

Juan Ramon Madariaga, epaimahaikidea

Txani Rodriguez, epaimahaikidea

Luis Gutierrez, epaimahaikidea

Pedro Alberdi, epaimahaikidea

Goizalde Landabaso, epaimahaikidea

Nagore Layuno, idazkaria

A
KATEGORIA
(LHko 3. eta 4. mailak)



AKER ZURI



*Izaro Hurtado Mata,
Zamakola-Juan Delmas HLHI.*

Orain dela urte asko Euskal Herriko mendietan Aker Zuri bizi zen. Bere ize-nak esaten zuen bezala akera zuria zen. Gizakiek ezin zuten ikusi magian ez zutelako sinesten.

Urtean behin Aker Zuri agertzen zen mendi tontor batean ilargiaren argiaren azpian. Bere buztanak eta adarrek Eguzkiaren izpiak bezala distiratzten zuten. Bere pentsamenduarekin ondo portatzen ziren umeei amets ederrak izaten laguntzen zien, baina txarto portatzen zirenei amets gaiztoak ematen zizkien gau horretan.

Haizea, bederatzi urteko neskatoa, esnatu zen gau batean eta logelako lei-hotik Aker Zuri ikusi zuen mendi tontorrean eta ez zuen ahaztu.

Hurrengo urtean amets batean Aker Zuriren ahotsa entzun zuen:

—Haizea, zatoz nirekin!

Haizea ziztu bizian joan zen bere bila. Basoa zeharkatu zuen Aker Zuriren argia segitzen. Ailegatzean Aker Zurik esan zion:

—Ez izan beldur, Haizea, hona ekarri zaitut nigan sinesten duzulako.

—Pozten naiz!

—Ilargira eramango zaitut gauza magikoak eta dibertigarriak ikusteko. Aker Zurik esan zion bere bizkarrera igotzeko eta hegan egiten hasi zen.

Haizeak pozez beteta oiheratu egin zuen. Ate magiko batetik pasatu ondoren ilargira iritsi ziren.

Han animalien mundua zegoen: txakurrek trafikoa zaintzen zuten, arrainak trajez jantzita joaten ziren lan egitera, behiek korrika egiten zuten argaltzeko...

Haizeak, harrituta, hantxe gelditu nahi zuela esan zuen, baina Aker Zurik ezetz esan zion, bere etxera bueltatu behar zuela.

—Ondo portatzen bazara, itzuliko zara berriro.

Eta zuri, gustatuko litzaizuke Aker Zuriezagutzea?



Pelutxe baten bizitza

*Martina Villate Martínez,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.*

Kaixo! Behia dut izena eta pelutxezko hipopotamoa naiz. Behia bataiatu ninduen Irantzuk, nire jabeak, behi bat nintzela uste zuelako, baina gero konturatu zen ez neukala adarrik eta hipopotamoa naizela.

Oso pozik nago Irantzurekin, asko maite nauelako eta primeran zaintzen nauelako. Gainera, beti egiten dugu lo elkarrekin. Bere gauzak kontatzen dizkit: bere ametsak, bere sekretuak...

Baina ez pentsatu nire bizitza erraza izan denik, batere erraza izan ez delako. Lantegi batean egin ninduten, Belgikan. Hori agertzen da nire etiketan. Gero, hegazkin batera igo eta zorabiatu nintzen. Jaitsi ondoren, kamioi batera eramane eta jostailu-dendara heldu nintzen.

Gaua zen. Denda itxita zegoen, eta jostailu guztiak berbetan ari ziren. Orduan ikusi nuen, atzeko aldean, apal baten atzean, gela ilun bat. Mahai bat zeukan eta gainean jostailu zahar eta ez erosiak zeuden. Aurpegi tristeak zituzten inork ez zituztelako maite. Larritu nintzen. Eta hori gertatzen bazitzaidan niri? Dendan geratuko nintzen goibel betiko. Hori ikaragarri txarra izango zen. Horretan pentsatzen nengoela, hartz erraldoi bat niregana hurbildu zen. Beldurtuta nengoen.

—Berria al zara? galdetu zidan.



—Ba-ba-bai. —erantzun nion hitz-totelka.

—Ongi etorri! —esan zidan.

Isilik geratu nintzen, ez nekien zer esan.

—Nola deitzen zara? —galdetu zidan.

—Ba... —hasi nintzen esaten.

—Barbie, etorri, Ba-ri, erakutsi behar diozu denda —esan zion hartzak panpina bati.

Ni ez nintzen “Ba” deitzen. Egia esateko, ez nekien zein zen nire izena. Eta “Ba” hura ez zitzaidan gustatzen, baina ez nuen ezer esan.

Barbieri jarraitu nion. Panpina oso berritsua zen eta ez zeukan isiltzerik. Baina nik ez nion Barbieri kasurik egiten. Leku guztietara begira nengoen. Jostailuak hizketan ari ziren, guztiak barrez. Ez zen inor nitaz arduratzen. Ez nuen ezer ulertzen. Haiek ez zeuden larrituta? Ez ziren atzeko gela ilun horretaz arduratzen? Galdera gehiegi neuzkan buruan. Orduak pasatu ziren eta orduan norbaitek egin zuen oihu.

—Badator! Badator! —esan zuen.

Jostailu guztiak beraien lekuetara itzuli ziren, ni ere bai. Pertsona nagusi bat dendara sartu, ateko kartela aldatu eta jesarri egin zen. Erosleak dendara sartzan hasi ziren. Beste jostailuak ukitzen eta aukeratzen zituzten, baina ni ez. Orduan Irantzuren amak hartu ninduen. Ordaindu eta kutxa batean sartu ninduten.

Kutxan denbora luzea eman behar izan nuen baina, azkenean, Irantzuren urtebetetzea heldu zen. Irantzuk kutxa ireki eta ni agertu nintzen. Ume pilo bat ikusi nuen. Irantzuk besoetan hartu eta besarkatu ninduen. Poz-pozik nengoen, familia bat neukan.

Handik aurrera Irantzuren ohean bizi izan naiz, oraindik bizi naiz, eta, nire ustez, denbora gehiago biziko naiz hemen. Lagun asko ditut: “Tximino” tximinoa, “Neska” txakurra, “Neskatxoa” Neskaren alaba, “Aita-lagun” Neskatoaren

aita...

Jadanik ez naiz gela ilunaz gogoratzen. Pozik bizi naiz. Hala ere, badago gorroto dudan gauza bat: garbigailua!... Bueltak eta bueltak ematen ditu eta asko zorabiatzen naiz. Gizakiek frogatuko balute, konturatuko lirateke zein txarto pasatzen den eta ez luke te pelutxerik garbigailuan berriro sartuko.



Beste guztia oso ondo doa.

Egia esan, batzuetan, pelutxeok haserretzen gara baina, azkenean, beti konpontzen gara, guztiok bakean bizi behar garela esaten duelako Irantzuk.

Hori izan da guztia gaurkoz.

Behia, zuen pelutxerik gustukoena.

Agur!



Gernikako iskanbila

*Ainhize Tejedor Martinez,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.*

Behin batean, Olatz izeneko neska jolasten zegoen bere lagun Izaro eta Ireneekin. Olatzek 8 urte zituen eta aita eta amarekin bizi zen baserrian. Bere baserria oso polita zen. Olatzek oso gustukoa zuen sokasalto eta aititeri laguntzea.

Olatz 1937ko apirilaren 26an esnatu zen. Korrikan joan zen bere lagunekin plazara jolastera. Sokasaltora jolasten zeudenean iskanbila handia sortu zen. Olatzek eta bere lagunak ez zekiten zergatik joaten zen jendea punta batetik bestera eta zergatik entzuten ziren sirenak.

Olatz eta bere lagunak izututa zeuden eta elizara joan ziren eta, giltzez ixten ari zirenean, txakur bat hanka oker batekin ikusi zuten. Elizako botikina hartu eta hanka bendarekin estali zioten.

Olatzek bonbardaketa zegoela ikusi zuen. Eraikin garrantzitsuena sunsirituta zegoen. Jendea korrika, negarrez eta zarataka zegoen.

Baina Olatz, Izaro eta Irene lehen baino askoz urduriago zeuden, txakurra izututa zegoen zaunka eta zaunka. Bat batean Olatzek esan zuen:

—Begira, logela bat.

Eta Irenek esan zuen:

—Sartu logelara!


Sartu egin ziren eta Izarok giltzez itxi zuen.

Ez zuten zaratarik entzuten. Kalera irten ziren eta bonbardaketa amaitu zela ikusi zuten. Bonbardaketaren ondorioz dena suntsituta gelditu zen. Anbulantzia asko zeuden jendea ospitalera eramateko eta jendearen bila joateko.

Ibiltzen zihoazen bitartean, beren gurasoak ikusi zituzten. Oso triste ze-tozen. Gurasoek haxe esan zioten beraien alabei:

—Oso triste gaude baina bonbardaketaren ondorioz Bilbora joan behar gara bizitzera.

Olatz, Izaro eta Irene triste zeuden, baina azkenean onartu egin zuten.



Leonardo katua

*Iratxe Urrutia Sordo,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.*

Denok dakigu katu guztiek zazpi bizitza dituztela. Ba, bazen behin “Leonardo” izeneko katua. Bere lehenengo bizitzan, katua oso gaztea zenez, beti zegoen nagusiei galderak, galderak eta galderak egiten. —Zergatik naiz katua? Zergatik dut “Leonardo” izena? —Katua zara gu ere katuak garelako! —esan zion bere amak— eta “Leonardo” duzu izena Leonardo da Vinci-ren omenez, bera bezain artista izango zarelako. Bigarren bizitzan, ikastolara joaten zen asko ikastera. Gehien gustatzen zitzaiona marrazkiak egitea zen. Marrazki oso politak egiten zituen: loreak, izarrak, zuhaitzak... Hirugarren bizitzan, ikastolako autobus gidaria izan zen. Eta ikastola askotako umeak eraman zituen. Kilometro asko egin zituen autobusean. Leonardo edonori laguntzeko prest zegoen beti. Laugarren bizitzan, munduari bira osoa ematera joan zen itsasontzi ba-


tean. Mapak irakurtzen eta marrazten ikasi zuen. Gauean izarrak begiratzeko zintuen eta bere hurrengo bizitza nolakoa izango zen ametsetan lo gelditzen zen.

Bosgarren bizitzan, piraten itsasontzi baten kapitaina izan zen. Oso kapitain ausarta eta trebea zen. Altxor asko aurkitu zituen. Altxorrak zatitan banantzen zituen pobreen artean.

Seigarren bizitzan, musikaria izan zen. Munduko orkestra onenetariko zuzendaria izan zen eta munduan zehar ibili zen. Orkestran pianoa, xilofonoa, tronpeta eta beste hainbat musika tresna jotzen zituzten.

Azkenik, bere zazpigarren bizitzan, artista izan zen. Pintorea, eskultorea, arkitektoa eta zientzialaria izan zen, bere garaian Leonardo da Vinci izan zen bezalaxe.

Ondo esanda, gure katua artista izan zen bere bizitza guztietan. Bere ekingizak guztiak besteei laguntzeko eta alaitzeko izan ziren. Horrelako artista asko egon ezkerro, mundua askoz hobea izango litzateke.



Anthonyren istorioa

*Naroa Torrealday Salvador,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.*

Bazen behin ume txiki bat zubi baten azpian bizi zena. Ume txikia Anthony deitzen zen. Anthony oso pobrea zen eta bere gurasoak kotxe istripu baten hil ziren. Hortik Aurrera Anthony nagusiagoa egin zen.

Egun baten izugarrizko txaparrada jausi zen eta Anthony asko beldurtu zen. Orduan bat-batean ertzain bat agertu zen. Ertzainak Anthonyri ea bakarrik zegoen galdetu zion, orduan ertzainak berarekin joateko esan zion. Anthony oso urduri jarri zen ez zekielako nora eroango zuen. Azkenean leku batera heldu ziren eta Anthony leku hori umezurtz-etxea zela konturatu zen. Ertzainak Anthony umezurtz-etxean utzi zuen.

Umezurtz-etxean neskak bakarrik zeuden eta Anthony gorritu egin zen. Ertzaina joan zen eta neska batzuk barrezka hasi ziren eta Anthony oso txarto sentitu zen. Orduan neska batek kasurik ez egiteko esan zion, beste neska horiek beti barrezka zebiltzalako. Beste neska batek, Maria izenekoak, Anthonyri logela erakutsi zion. Logela oso-oso zikin zegoen, gainera dena apurtuta.

Anthonyri ez zitzaion umezurtz-etxea batere gustatu.

Egun batean, Anthonyk umezurtz-etxetik joatea erabaki zuen. Askotan ahalegindu zen etxetik alde egiten baina umezurtz-etxeko andreak belarritik hartu eta etxera eroaten zuen behin eta berriro. Anthony nekatzen hasi zen. Egun polit batean Angel eta Begoña izeneko bikote bat agertu zen umezurtz-etxetik. Angelek eta Begoñak neska bat nahi zuten. Neska aukeratu zutenean, neska horrek bera ez hartzeko esan zien, oso ondo pasatzen zuelako umezurtz-etxean, Anthonyk, berriz, ez. Beraiek esan zuten ez zitzaienta inporta mutil bat edukitzea eta, orduan, Anthony hartu zuten. Anthony oso pozik jarri zen eta eskerrak eman zizkion neskari.

Hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila kirikiñoکو plazan.



Denboraren bidaia


*Iker Danoz Corral,
Luis Briñas-Santutxu HLHI.*

Bazen behin ume bat Unax deitzen zena eta hamar urte zeuzkana. Arreba txiki bat zuen, Ane deitzen zena eta lau urte zeuzkana, eta bere aita zientzialaria zen.

Egun batean, Unaxek aitaren laborategiko giltzak hartu zituen eta laborategira joan zen zer zegoen ikusteko. Sartu zenean konturatu zen Ane bere atzetik zegoela eta joateko esan zion, baina Anek ez zuen nahi eta biak sartu ziren laborategian.

Han, gauza asko zeuden baina harrigarriena makina handi bat zen. Arrautza erraldoi bat zirudien. Bertan sartu eta jesarri ziren. Barruan zeudenean, nabe espaziala bezalakoa zen, palanka bat ikusi eta bultzatu zuen Unaxek. Dena dardarka hasi zen. Biek elkar besarkatu zuten indartsu eta azkar gelditu zuten dena. Bat batean elefantearena zirudien soinua entzun zuten.

Makinatik kanpora atera ziren eta oihan bat zegoela ikusi zuten eta bertan dinosauro bat zegoen. Zortea eduki zuten belarjalea zelako! Denboran bidaiatu zuten eta Jurasikoan atera ziren. Konturatu ziren makinaren torloju bat galdu zutela. Atzera begiratu zuten eta zuhaitz baten gainean zegoela ikusi zuten, baina diplodokoa eurek baino azkarrago joan zen eta torlojua jan zuen.



Bi egun egon ziren itxaroten diplodokoak kaka egin arte. Azkenean torlo-
jua hartu, garbitu eta makinan jarri zuten eta berriro Aro Garaikidera bueltatu
ziren. Barkamenak eskatu zizkioten aitari beldur handia pasatu zuelako, baina
esperientzia oso ona pasatu zuten.

B
KATEGORIA
(LHko 5. eta 6. mailak)



Oroitzapen bila

*Nerea Erdozain Toribio,
Birjinetxe HLHI.*

Esnatu naizenean iluntasuna izan da nagusi. Nire hiria suntsituta dago ez baitago bakerik. Gerran gaude eta tristura da nagusi. Bakarrik nago, ez daukat familiarik ezta lagunik ere. Beldurrak nago baita goseak ere. Ez dakit non nagoen baina leku ilun batean nago nekeak jota. Ezin naiz altxatu zauriz beteta nagoelako. Begiak ixten ditut eta oroitzapenak etorri zaizkit burura, oroitzapen onak. Oroitzapen horiek bereziak ziren, irribarrea sortzen zizkidaten nire aurpegian. Ez neukan tristura ezta minik ere bihotzean. Gogoratzen hasi naiz zein ondo pasatzen nuen nire lagunekin ezkutaketan jolasten, ze pozik nengoen nire amak jertse bat egiten zidanean, ze polita zen nire hiria... Bat-batean oroitzapenak bukatu zaizkit, begiak ireki



ditut eta errealitatea ikusi dut. Nire hiria suntsituta agertu zen, eta hor ez zegoen nire familia ezta nire lagunak ere. Errealitatea jakitean irribarrea joan zait eta tristura sartu zait nire gorputzean.

Altxatzen saiatu naiz laguntza eskatzeko baina alferrik da, nire oinek ez didate obeditu. Oihukatzen hasi naiz norbaitek entzungo didan itxaropenekin baina ez da inor etorri. Itxaropenak galdu ditut eta negarrez hasi naiz.

Begiak itxi ditut eta oroitzapenak etorri zaizkit burura. Oroitzapen horiek bereziak ziren, gosea eta egarria kentzen zidaten. Gogoratzen hasi naiz ze pozik jartzen nintzen nire amamak gozoki bat ematen zidanean, ze pozik jartzen nintzen egarri nintzenean nire aita te berdea ematen zidanean. Bat-batean oroitzapenak bukatu dira. Begiak ireki eta mutiko bat ikusi dut niri begira. Ez dut ezagutzen baina ezaguna iruditzen zait. Mutikoa zaurituta dago, eta oso makal dago. Kamiseta zahar bat du, eta 12 urtekoa dirudi. Hitz batzuk esan dizkit.

—Sol... da..du. Eto.. rrii!

Hasieran ez diot ulertu baina pauso-hotsak eta oihuak entzutean segituan ulertu diot soldaduak zetoze. Altxatzen lagundu dit eta poliki-poliki ibiltzen hasi naiz. Mutikoa oso beldurtuta dago, baita ni ere. Korrika egin nahi dut soldaduek ez harrapatzeko baina nire hankek ez didate kasu egiten. Galderak egiten hasi natzaio neure buruari. Ezagutzen al dut? Nor da? Ez dut ulertzen. Nork arriskutuko luke bere bizitza ezezagun baten bizitza salbatzeko?

Etxe batean sartu gara, eta berak segituan ohe batean etzanarazi nau. Gero, berehala, logelatik joan da eta joatean hau esan dit:

—Gera..tu he..emeen, Adeeb.

Nola daki nire izena? Zer nahi du? Begiak itxi ditut eta oroitzapenak etorri zaizkit burura. Oroitzapen horiek normalak ziren, ez ziren besteak bezalakoak. Etxe batean nengoen kebab bat jaten ama, aita, amama eta mutiko batekin. Baina nor zen mutiko hura? Beste oroitzapen bat etorri zait burura. Kometa batekin nengoen jolasean eta bat-batean ziplo jausi nintzen lurrera. Mutil ezezagun hark eskua eman eta altxatzen lagundu zidan. Mutiko ezezaguna nire neba zen!!!

Oroitzapenak bukatu dira, begiak ireki ditut nire neba ikusteko baina ez dut ikusi nire neba. Bakarrik bi soldadu daude. Nire neba akabatzeko... Pausoak entzun ditut eta gero soldaduak ikusi ditut niregana etortzen barrezka. Begiak itxi ditut, jadanik ez dut nahi mundu honetan bizi. Nire familiarekin joan nahi dut lasai eta trankil bizi ahal naizen leku batean, nire oroitzapenetan murgildu ahal naizen leku batean.



Jendeak ez zuela tolerantziarik

*Lili Adela Aldekoetxea López-Linares,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.*

Bazen behin 1530. urtean, Bizkaiko portu batean hamabost urteko Ruper izeneko mutil bat. Bi urte zeramatzan mutilak itsasontzi batean txo lanak egiten.

Urteberrian, goizeko ordu batean, amamaren etxetik zetorrela ondo afalduta, etxeko atarian auzokide marinel batek bostekoa eman zion zoriontzeko. Marinela horrek, zoritzarrez, Italian hartu zuen lepra, legenarra.

Urte bat geroago, Ruperri agertu zitzaizkion legenarraren sintomak: larruazaleko orban zuriak, sentikortasuna galtzea, gorputz osoan zauri ultzeratuak agertzea, eta aurpegian itxura oso zatarra.

Gurasoak Ruperri zerbait gertatzen zitzaiola konturatu ziren eta medikua-
renera eraman zuten.

Dudarik gabe legenarra zela esan zien medikuak eta gaixotasun horrek ez zuela erremediorik gehitu zuen.

Bizkaiko legeak argi ezarrita zuen Ameriketara eraman beharko zutela.

Baina Ruperrek ez zuen legendundegira joan nahi, nahiago zuen herrian geratu baitzekien amama, gurasoak eta txakurra abandonatzeagatik penaz hilko zirela.

Biharamuneko egunsentian bidaia hasi zen sekretupean, Bizkaiko jauna zen Karlos I. arengana joatea erabakia zuen, Granadara.

Granadako jauregian kontatu zion erregeari berak ulertzen zuela legendarra gaixotasun kutsakorra izatea baina bere herritik gertu geratu nahi zuela.

Errege jaunak, alde batetik penaturik baina bestetik nazkaturik, guardiak deitu eta gurdi batean Balmasedaraino preso eramateko agindu zien, Magdalena baselizara San Lazaro fraideekin.

Magdalena Baselizan, legendundegian, bere moduko gaixo lagun bat egin zuen, Migel izenekoa, eta gainera Fausto Anaia. Misiolari zahar horrek animoa ematen zion bizitzeko, bai eta tomate eta tipula ere zauriak sendatzeko.

Egunero, Migel eta Ruperren arteko elkarriketak eztabaidak bihurtzen ziren, baina gauza batean ados zeuden: jendeak ez zuela tolerantziarik, eta ez zela bidezkoa zerbait desberdina edukitzeagatik beren herritik kanporatzea, erbesteratzea.

Bost urte pasata, Santo Tomas egunean Ruper hil egin zen; gizajoak behin ere ez zuen eduki bere bihotzeko amama, guraso eta txakurraren bisita. Debekua zegoen.





*June Landa Sagarduy,
Birjinetxe HLHI.*

Aireportuan nengoen. Ezin nuen maleta ia eraman. Jendea gainezka zebilen handik hona. Presaka. Edo pantaila handiak begiratzten. Entrenatzai-leak irribarreak botatzen zizkidan, nik beldur aurpegiak ipintzen nituen bakoitzean. Nire taldekideen atzetik nindoan korrikan maletarekin. Urduri, galdu ahal genuelako. Hogeia minututan aterako zen hegazkina eta ezin izango genuke lehiaketan parte hartu. Lehenengo aldiz Bilboko soka-tira taldea Europara zihoan lehiaketan parte hartzera, emakumezko alebin kategorian, eta ni naiz kapitaina.

Hegazkinean sartu eta lau ordu pasa nituen leihotik begira ezer ikusi gabe. Logikoa. Gaua zen. Aspertuta, aurreko aulkitik aldizkari bat hartu eta irakurtzen hasi nintzen. Norvegia herrialdeko datu asko zeuden: Oslo dela hiriburua, 4,9 milioi biztanle dituela, hizkuntza norvegiera dela, negu gogorak dituela... Oso interesgarria zen, ni hara nindoalako eta otsaila zen: Osloko aireportuan hama-bost gradu zero azpitik.

Lurreratu ondoren, autobusa hartu eta hotelerantz joan ginen. Bat-batean golpe bat nabaritu nuen ipurdian, gurpil bat elurretan trabatuta geratu zen. Gidariaren atzean, autobusetik jaitsi ginen. Ikusi genuenean berehala bururatu zitzaidan ideia bat.

—Taldea, entrenatzera! —oihukatu nien—. Sokarekin autobusa berriro jarriko dugu bidean.

Nik esan nuena egin genuen eta, kostata, azkenean hotelerantz abiatu ginen berriro.

Hor ez ziren abenturak bukatu. Hoteleko igogailua apurtuta zegoen eta gure gelak azkenengo pisuan zeuden. Ekipajeak oso pisutsuak zirenez eskaileretatik igo beharrean, balkoitik egitea erabaki genuen:



—Taldea, entrenatzera! —oihukatu nien—. Sokarekin maletak banan-banan igoko ditugu.



Bukatu genuenean, gosez lehertuta, autobusa hartu genuen Oslo erdiko jatetxe batera afaltzera joateko. Gau iluna, haizetsua eta hotza zen. Ez zegoen inor kalean eta elurra zegoen alde guztietatik.

Bapo afaldu genuen: bakailaoa norvegiar erara eta gazta tarta elur-oreinaren esnearekin. Oso nekatuta geundenez hotelerako bidea hartu genuen lo egiteko asmoz. Hurrengo eguna oso garrantzitsua zen: Eskozia, Irlanda, Frantzia eta Europako beste selekzioen kontra lehiatu behar genuen.

Bidean beste ezuste bat aurkitu genuen. Errepide erdian zuhaitz bat erori-ta zegoen. Pinu erraldoi eta zahar bat. Ez zitzaidan beste irteerarik bururatu:

—Taldea, entrenatzera! —esan nien—. Sokarekin zuhaitza albo batera eramango dugu.

Hotelera heldu eta lo ziplo erori ginen. Normala. Egun osoa entrenatzen egon ginen.

Hurrengo egunean goizeko zazpitan esnatu ginen. Bueno entrenatzaileak esnatu gintuen. Gosarian rommergot probatu genuen baagggss! Igelaren tripak ziruditen.

Bukatu genuenean arropa janzten hasi ginen: txandala, ekipoko kamiseta, kirol zapatilak... Motxilak prestatu ondoren, Osloko kiroldegirik handienera joan ginen. Egia esan ikusi dudak kiroldegirik handiena. Pabilioian sartu eta ekipoguztiak entrenatzen zeuden: Frantzia, Ingalaterra, Danimarka, Polonia... Orduerdian lehiaketa hasiko zen eta guztiok nahi genuen irabazi.

Gu aldageletara joan ginen planak egitera. Ordu erdia oso azkar pasa zen eta laster hasi ginen lehiatzen: Lehenengoa erreza, bigarrena pixka bat kostata, hirugarrena borrokatua baina irabazi, laugarrena gutxitik baina aurrera eta hurrengo eguneko final erdietara heldu ginen.

Nire taldekideei eta niri asko gustatzen zaigunez izotz irristaketa hotel ondoan izoztuta zegoen laku batera joan ginen. Batzuek patinatzen beste batzuek piruetak egiten. Dena oso lasai zegoen eta bat batean ume baten oihuak entzun ziren. Izotza apurtu zen eta uretan blai eginda eta izoztuta zegoen. Berehala esan nuen:

—Taldea, entrenatzera!! Sokarekin umea uretatik aterako dugu.

Soka hartu eta umea salbatu genuen.

Hotelera joan eta laster lo hartu genuen, hurrengo eguna oso egun garrantzitsua zelako. Hurrengo goizean Holandakoek kontra kostata irabazi genuen eta finala Norvegiakoek kontra tiratu beharko genuen. Oso gogorra izan zen finala eta azkenean galdu egin genuen. Triste, aireportura joan ginen eta azkeneko sorpresa bat falta zen aireportuko kiosko batean egunkariaren portadan gure argazkia zegoen umea salbatzen. Eta esan nien:

—Neskak etxera, hoberenak zarete!

AMETSAK EGIA BIHURTU DAITEZKE

*Leire Inclán Mora,
Kirikiño Ikastola HLBHIP.*

Ni Leire Herrera naiz. Gaur egun 25 urte ditut eta Nueva York-eko antzerki famatu batean musikal baten protagonista bezala lan egiten nago. Askok pentsatuko duzue nire bizitza amets baten antzekoa dela eta ez da harritzekoa. Egun, dudan bizitza lortzeko hainbat arazori aurre egin eta muga asko gainditu behar izan ditut.

Nire karrera profesionala 3 urterekin hasi zen...

“Txikia nintzela, momentu hartan famatua egin zen neska abeslari baten jarraitzaile sutsua bilakatu nintzen. Horrela, arratsalde ugari nire logelan dantza egiten igarotzen nituen. Esan beharra dago, Disney-ren telesaioek ere dantza eta musikarekiko zaletasun hori berpiztu zidatela. Hain handia zen nire pasioa, nire gurasoek azkenean dantza eskola batera eraman nindutela. Bertan, pausu berriak eta dantza estilo berriak ikasi nituen. Hasieran, bazirudien “hobby” bat besterik ez zela, baina denbora pasa ahala dantza ezinbestekoa bilakatu zen nire bizitzan. Egunero, ordu, minutu eta segundo guztietan dantza zegoen nire buruan.





Nire nerabezaro garaian, nire lagunak hainbat festa-tara joaten ziren bitartean eta mutilez hitz egiten zuten bitartean, ni dantza eskolan ibiltzen nintzen nire teknika hobetzen eta lantzen. Dantzarekiko maitasun honek 16 urteko edozein neskak zituen bizipenak galtzea ekarri zidan.

Dantzaren munduan sartu nintzenetik, honekiko nuen maitasuna eta zaletasuna indartzen hasi zen. 16 urterekin nire lehenengo proba profesionala egin nuen iragarki batean lan egiteko. Handik aurrera, dantzarekin zerikusia zuten lan ezberdinetan lan egiteko hainbat proba egin nituen.

Arazoa 18 urterekin agertu zen. Nik ikastolako ikasketak bukatu eta atzerrira joan nahi nuen. Nire gurasoek, aldiz, unibertsitatera joatea eta bertan, nire ahizpak bezala, arkitekturako ikasketak egitea zuten gogoan.



Universidad
de Navarra

Arkitekturako ikasketak egitea onartzeak dantza talde bat uztea suposatzen zuen, zeren eta unibertsitatea Nafarroan zegoen. Azkenean, bai nire gurasoek, bai nire ahizpak ere, nik Arkitekturako ikasketak onartzea lortu zuten, baldin eta dantza eskolara joateko aukera banuen.

Irailean Nafarroako Unibertsitatera bizitzera joan nintzen. Hasieran, goizetik klasera joaten nintzen eta arratsaldeetan, bertako dantza eskola batera. Lehenengo hilabeteetan gauza biak parekatzeak ez zidan arazo handirik sortu. Abendua heldu zenean, graduako azterketak hasi ziren. Gutxi-gutxinaka dantza eskolara joateari utzi nion. Dantza uztearekin batera, estresa eta umore txarra nire baitan finkatu ziren. Azterketa guztiak gainditzea lortu nuen eta nire familia pozarren zegoen, baina hori ez zen nik nahi nuen bizitza. Bigarren hiruhilekoa hastear zegoenean, betidanik nire ametsa izan den hori errealitate bihurtzea erabaki nuen.



Gurasoen nahiei uko eginez, ikasketak utzi eta Londresera bizitzera joan nintzen nire ametsa lortzeko asmoz. Bertan, egoera gogor askoren aurka borroka egin nuen. Momentu askotan nire mailetak hartu eta Bilbora bueltatzeko nahia agertzen zitzaidan. Hala ere, muga horiek guztiak gainditu nituen. Nire bizitza profesionalak bide ezberdin bat hartu zuen, Nueva York-eko begirale bat dantza eskolan agertu zenean. Hark Nueva York-eko dantza-eskola famatuan ikasteko beka bat eskaini zidan. Eskaintza horrek ezustekoan hartu ninduen baina ez nuen minutu bat ere itxaron onartzeko.

Momentu hartan hasi zen nire bizitza amerikarra.”

David eta “tximeleta begizta”

Haizea Garcia Villanueva,
Uribarri HLHI.


Bazen behin David izeneko mutil gazte bat. Ile horia eta kizkurra zuen, begi marroiak eta aurpegi borobila. Oso mutil txikia zen bere adinerako eta nahiko lodi zegoen. Gorlizen bizi zen bere gurasoekin eta anaia txikiarekin.

Txiki-txikia zenean, opari berezi bat egin zion asko maite zuen pertsona batek, bere aititek, hain zuzen ere. Aitite Julianek bere bizitza osoan zehar eramandako “tximeleta begizta” berezia oparitu zion hil aurretik. Oparia leku sekretu batean gorde eta ahaztuta utzi zuen.

Zortzi urte zituela, Gorlizeko etxea saldu eta Bilboko etxe bat erosi zuten bertan bizitzeko. Bilbon zegoela, goiz batean esnatu eta berehala, galtzontziloak eta galtzerdiak hartzeko asmoarekin abiatu zen armairurantz, eta aitite Julianek oparitutako “tximeleta begizta” ikusi zuen. “Nire klaseko lagun berriek txoratuta geratuko dira nire opariarekin” pentsatu zuen Davidek.

Egun horretan dotore jantzi zen gure protagonista eta klasera abiatu zen besteak zer esango zuten jakin minarekin. Harro-harro sartu zen gelara, baina espero zuenaren kontrakoa gertatu zen. Ikaskide guztiek, Xabier izeneko ume bat izan ezik, barre egin zuten bere janzeraz. Xabier Down sindromea zuen mutil jatorra zen baina bakardadean bizi zen gainerako ikasleak bere ondotik aldentzen

baitziren. Handik aurrera gelako ikasle guztiek David eta Xabier bakarrik uzten zituzten eta elkarrekin baino ezin ziren egon.



Opari berezi horrek aitite gogorazten zion eta horregatik ez zuen kendu nahi. Heziketa fisikoko saioetan, ordea, kentzeko betebeharra zeukan eta aldageletan uzten zuen. Gai horretan futbola tokatzen zitzaion eta, beti bezala, dena aldageletan uzten zuen. Behin, saioa amaitzerakoan, duxetara jaitsi ziren eta bere “tximeleta begizta” ez zegoela konturatu zen. Bilatu eta bilatu egin zuen bost egunetan zehar, baina ez zuen lortu bere pajarita aurkitzea.

Bost egun horiek, bere bizitzako egun bakartienak izan ziren. Oso txarto pasatu zuen ezin zuelako aititie Julian burutik kendu. Hark oparitutakoa galdu egin izanak txarto sentiarazten zuen, bere bizitza guztian jarrita izan zuelako eta gustatuko ziolako belaunaldiz belaunaldi igarotzea.

Triste abiatu zen klasera hurrengo egunean, baina klasera sartzerakoan han zegoen Xabier bere pajarita bereziarekin. Pentsatu eta pentsatu aritu zen jolastordu osoan zehar eta azkenean ondorio honetara heldu zen:

“Nire aititek oparitutako “tximeleta begizta” berezi hau askoz erabilgarriagoa izango da Xabierrentzat opari honekin bakardadea alde batera utziko baitu. Eta gainera aitite Julian nitaz harro egongo da”



C
KATEGORIA
(DBHko 1. eta 2. mailak)



IRRAZIONALEN ETA PERFEKTUEN ARTEKO LEHIA


*Alba Hernández Costoya,
Karmelo Ikastola-Solokoetxe BHI.*

Baziren behin bi koadrila, haien artean etsaiak zirenak. Ez ziren inoiz toki berberera joaten, arazoak ekiditeko.

Lehenengo koadrilakoek izen hau jarri zioten euren buruari: “Irrazionalak”. Koadrila horretakoak zenbakiak ziren; baina ez edozein zenbaki: koma eta gero infinituak zirenak; baina periodikoak ez ziren guztiak onartuta zeuden koadrila horretan. Zenbaki infinituak zeuden koadrila horretan, baina liderrak π (π), e (e) eta Aureo (Φ) ziren. π grekoa zen eta zirkulu eta zirkunferentzietan bizi zen. e katenarietan eta armiarma sareetan bizi zen, besteak beste. Aureo oso aberatsa zen munduko kreditu txartel guztietan bizi zelako. Izan ere, grekoa zen eta greziar tenpluetan bizi zen ere. π eta e askotan joaten ziren Aureo bisitatzera. Bisita egiteko, Atenaseko Partenaira joaten ziren. Partenoian sartzen ziren bakoitzean haien Madrilgo lagunarekin, H_{DiosO} -rekin, santiguatzen ziren.

Beste alde batetik, bigarren koadrila zegoen. Hauek euren buruari izen hau jarri zioten: “Perfektuak”. Koadrila honetakoak ere zenbakiak ziren; baina zenbaki arruntak eta zenbakiaren zatitzaile guztiak (bere burua kenduta) batzean, bere burua izan behar zen batura. Zenbaki asko zeuden koadrila honetan, baina liderrak Sei (6) eta Hogeita Zortzi (28) ziren. Beti azterketak eta frogak egiten

zeuden. “Perfektuak” zirenez, titulu ugari lortuko zituztela horrela esaten zuten. Ez zuten inoiz denbora librerik hartzen, eta horregatik bizitza sozial urria zuten.



Egun batean, Pitagoras izeneko matematikari greko batek, Pitagoras-en teorema frogatu zuenak (triangelu angeluzuzen batean: $\text{kateto}^2 + \text{kateto}^2 = \text{hipotenusa}^2$), matematikako problema bat ebatzi behar zuen. Problema horretan, zirkulu baten azalera kalkulatu behar zen non diametroa 6 metro ziren. Zirkuluaren azalera kalkulatzeko, Pitagoras-ek, 6π egin behar zuen. Bat-batean, kalkulatzera zihoala, Seik eta Pik elkar ikusi eta protestaka hasi ziren:

—Ez dut berarekin ezer egin nahi, irrazionala delako eta nahi duena egiten duelako —esan zuen Seik.

—Ezta nik berarekin ere, “perfektua” delako eta uste duelako eragiketa guztien emaitzak zenbaki osoak izan behar direla edo bestela ez dutela ezertarako balio —erantzun zuen Pik.

—Perfektuak onenak gara! —esan zuen Seik.

—Eta zergatik? Irrazionalek protagonismo bera izan beharko genuke, ala ez? Ez zarete gu baino hobeak —erantzun zuen Pik.

Pitagorasek, eztabaida horretaz kokoteraino zegoela, honela bukatu zuen elkarriketa gogaikarri hura:

—Nahikoa da! Problema ebatzi behar dut eta ez nauzue bakean uzten. Hain etsaiak baldin bazarete eta ez baldin baduzue elkarri errespetuz tratatu nahi, lehiaketa bat egin beharko duzue. Ni neu izango naiz epailea, ongibaderitzozue.

—Ados! —erantzun zuten biek aldi berean.

Pitagorasek koadrila bakoitzeko 2-3 lagun hurrengo egunean, goizeko 10etan, Atenaseko tren geltokira joateko agindu zien.

Pi Partenoira joan zen eta E-ri eta Aureori azaldu zien. Sei Hogeita Zortziren bila joan zen eta Laurehun eta Laurogeita Hamaseiri ere abisatu zion. Hurrengo egunean, goizean, π , e , Φ , 6, 28 eta 496 Pitagorasekin bildu ziren.

—Egun on guztioi. Gaur, irrazionalen eta perfektuen arteko lehia behin-goiz bukatzeko bildu gara —hasi zen esaten Pitagoras—. Gaur, hiru froga egingo dituzue. Bi froga irabazten dituen koadrila irabazlea izango da —jarraitu zuen—. Galtzen duen taldeak beste koadrilari barkamena eskatu beharko dio eta lehia bukatzean, errespetuz tratatu behar zarete zuen artean —esan zuen orduan—. Lehenengo froga honetan datza: tren batean 10 pertsona sartu dira. Haien izenen letra kopurua batuz gero, zifra bat lortu dut. Zifra hori lortu behar duzue zuek ere; horretarako, bidaiariekin hitz egin beharko duzue. Lehenen bukatzen duen taldeak froga hau irabaziko du. Hemen dago trena, aurrera!

E, katenarietan bizi zenez, trenetako bidaiariekin hitz egiten ohituta zegoen. Gainera, irrazionalak oso erraz komunikatzen ziren jendearekin. 5 minututan izen guztiak zekizkiten: Arkimedes, Aristoteles, Sokrates, Platon, Hipokrates, Eratostenes, Miron, Poliklito, Fidias eta Praxiteles. Letrak batu zituzten: $9 + 11 + 8 + 6 + 10 + 11 + 5 + 9 + 6 + 10 = 85$.

5 minutu horietan, perfektuek bi izen lortu zituzten soilik, bizitza sozial urria zutelako.

—Benoa, lehenengo froga irrazionalek irabazi dute —esan zuen Pitagorasek irrazionalen erantzuna ontzat hartu ondoren—. Orain, bigarren froga tokatzen zaizue. Jaitsi trenetik, “Pitagorikoak” eskolara heldu gara. Bigarren froga —esan zuen eskolara sartzean— honetan datza: eragiketa konbinatu bat emango dizuet. Froga honetan ere, lehenengo bukatzen duena, erantzun zuzena ematen badu, irabazlea izango da. Hauxe da eragiketa:

$$\{[(8-10)-22+20]-40:5+(-4)-2+42\}:2=?$$

—Erantzuna 6 da —erantzun zuen Seik arineketan, emaitza hori duten eragiketak oso azkar kalkulatzeko dituelako.

—Bai, asmatu duzu —esan zuen Pitagorasek—. Orain froga bakarra gelditzen zaizue. Froga honetarako ordu bat izango duzue. Froga honetan aurkikuntza, asmakuntza edota frogaketa matematikoak egin behar dituzue. Gehien egiten dituen taldea izango da irabazlea. Aurkikuntza kopuruan berdinketa baldin badago, aurkikuntza interesgarriena, praktikoa eta garrantzitsua egiten duen koadrilak irabaziko du. Zortea! 3..., 2..., 1..., denbora!

Koadrila bakoitza gela ezberdin batean sartu zen.

Perfektuak, hasi baino lehen, tranpak egitea pentsatu zuten:

—Nahi baduzue 666ri laguntza eska diezaiokegu, nire osaba eta deabruaren zenbakia da —esan zuen Seik.

—Ez, hobe da tranparik ez egitea —hasi zen erantzuten 28—, bestela, harapatzen bagaituzte, irrazionalek irabaziko dute eta perfektuak ez ginateke izango koadrilako parte-hartzaile bakarrak.

—Ongi da —onartu zuen Seik.

Beste alde batetik, irrazionalek bi taldetxotan banatzea erabaki zuten, Pi alde batetik, eta E eta Aureo bestetik. Modu horretan, taldetxo bakoitzak aurkikuntza bat egingo zuen eta bi aurkikuntzekin irabaziko zuten.

—Eta... denbora! —esan zuen Pitagorasek—. Ordu bat pasatu da. Ikus ditzagun egin dituzuen aurkikuntzak, asmakuntzak eta frogaketak. Perfektuak, zuten txanda da.

—Guk aurkikuntza bat egin dugu; zenbaki sublimeak aurkitu ditugu —esan zuen 496k.

—Zenbaki sublimeak, zatitzaile kopurua zenbaki perfektu bat duten eta zatitzaileen batura zenbaki perfektu bat ematen duten zenbakiak dira —esan

zuen 6k.

- Bi zenbaki sublime daude guztira, haietako bat 12 da —argitu zuen 28k.
- Ados —esan zuen Pitagorasek—. Irrazionalak, zuen txanda da orain.
- Guk frogaketa bat eta asmakuntza bat egin ditugu —esan zuen Φ k.
- Frogaketa hauxe da: ez daude 9 periodikodun zenbakiak. Ez dira existitzen arrazoi batengatik: ez dago zatiki bat ere ez 9 periodikodun emaitza ematen duena. 9 periodikodun izango liratekeen zenbakia, hurrengo unitatera pasatzen da —azaldu zuen e-k—. Adibidez: $\frac{1}{9} = 0'1\hat{}$, $\frac{2}{9} = 0'2\hat{}$, $\frac{3}{9} = 0'3\hat{}$, ... $\frac{9}{9} = 1$.

—Egin dugun asmakuntza hauxe da: kode bitarra asmatu dugu. Hemen-dik mende askotara, txip elektronikoak asmatuko dira eta, bi posizio izango dituztenez, kode hau erabiliko dute. Kode hau 0ak eta 1ak soilik erabiltzen dituen zenbaki-sistema da. 0=0, 1=1, 10=2, 11=3. Kode horretan dagoen zenbaki bat gure zenbaki sistemara pasatzeko prestatu dudana taula begiratu. 155 zenbakia adibide gisa erabili dut —esan zuen π k.

Zenbakia kode bitarrean	1	0	0	1	1	0	1	1
Egin behar den kalkulua	$1 \cdot 2^7$	$0 \cdot 2^6$	$0 \cdot 2^5$	$1 \cdot 2^4$	$1 \cdot 2^3$	$0 \cdot 2^2$	$1 \cdot 2^1$	$1 \cdot 2^0$
Kalkulu bakoitzaren emaitza	128	0	0	16	8	0	2	1
Batuketa	$128 + 0 + 0 + 16 + 8 + 0 + 2 + 1$							


=155

Taula ikusi ondoren, Pitagorasek, hauxe esan zuen:

- Aurkikuntza, asmakuntza eta frogaketa hauek oso interesgarriak eta praktikoa dira, eta denboran zehar kontuan hartuko dira. Lehia hau irrazionalek irabazi dute, 2 aurkikuntza egin dituztelako eta perfektuek 1 soilik. Irrazionalak, zorionak! Perfektuak barkamena eskatzera.
- Barkatu zuen inteligentzia eta irrazionaltasuna zalantzan jartzeagatik, gaurtik aurrera errespetuz tratatuko zaituztegu —esan zuten han zeuden perfektuek.
- Barkatzen zaituztegu —erantzun zuten irrazionalek—. Guk ere errespetuz tratatuko zaituztegu gaurtik aurrera.
- Orain, mesedez, 6 eta π zuen artean biderkatu, problema ebatzi behar dut eta.
- Ados! —erantzun zuten biek aldi berean.

Handik aurrera, oso pozik eta errespetuz bizi izan ziren bi koadrilak denbora luzean zehar. Izan ere, gaur egun ere, oso lagunak dira; baina lagunak zentzu batean, zenbaki lagunak beste gauza bat direlako. Zenbaki lagunak, zenbaki baten zatitzaileak (bere burua kenduta) batzean beste zenbaki bat ematen duenean

eta beste zenbaki horren zatitzaileekin berdina egitean lehenengo zenbaki hori lortzen denean da. Zenbaki bikote horietako bakoitzari zenbaki lagun deritzogu.



Diferentea naiz

*June Sarasua Rivera
Karmelo Ikastola-Solokoetxe BHI.*

Arraroa zara, —esaten didate—, zu ez zara normala, —aitortzen didate... —Ni ez naiz arraroa, —erantzuten diet—; ni diferentea naiz, —esaten diet harro eta aurpegi txarrarekin begiratzen naute.

«Arraroak beraiek dira» pentsatzen dut nik, eta nire munduan murgiltzen naiz berriro. Besteek uste dute mundua borobila dela, nik badakit ez dela horrela. Nire mundua ez da borobila, nire munduak ez du forma definiturik. Aldapa amaiezin bat da batzuetan, belar berdezko lautada atsegina beste batzuetan... Nire mundua ez da borobila, nire munduak ez du formarik.

Eskolako andereñoak gelako ikaskideengana gehiago hurbiltzeko, lagunak egiteko, esaten dit bakarrik ez geratzeko. Nik beti esaten diot ez nagoela bakarrik, neure buruarekin nagoela, eta beti egongo naizela neure buruarekin. Besteek bezala, andereñoak jendeak ipintzen duen harridura aurpegi horrekin begiratzen nau, bere aulkian eseri eta ikasleen datuen koadernoan ateratzen du, desesperazio hasperen bat egiten du, eta boligrafoa estutxetik ateratzen du.

Eskolak amaitutakoan, denak ziztu bizian ateratzen dira ikasgelatik, eskola infernua balitz bezalaxe, baina ni ez. Ni txirrina jotakoan ez naiz presaka ateratzen. Motxila hartu eta zutitu egiten naiz, mahai guztiak gaineratik begiratzuz.

Orduan garbitzailea etortzen da eta «oraindik hemen?» galdetzen dit. Motxila bizkarrean jaso eta atetik ateratzen naiz, pasabide luzeetan barrena, patioa atera iritsi arte. Behin heldutakoan, kalera atera eta han ikusten ditut ikaskideak, denak niri begira. Burua mugituz, agur keinu bat egiten diet, eta haiek begira jarraitzen dute ezer esan gabe.

Aurrera jarraitzen dut etxerako bidean eta, portalera iristerakoan, auzokide batekin egiten dut topo. Igogailuko atea zabaltzen, eta sartzeko keinua egiten dit. Nik buruarekin, ezetz, berak igotzeko esaten diot, eta «ze arraroa zaren» esaten du zurrumurruka. Nik ez diot jaramonik egiten ekintza horri eta eskaileretan gora abiatzen naiz, eskailerak kontatuz. Etxeko atera heldutakoan poltsikotik giltzak ateratzen ditut eta atea zabaltzen dut, etxean inor egon ez dadin desiratuz. Neure zorte onerako ez da inor egoten ni etxera ailegatutakoan, eta nire ohean etzaten naiz sabaiari begira.

Halako batean aita sartzen da etxean, ni heldu naizela ere konturatu gabe. Laneko arropa erantzi eta egongelako sofara esertzen da. Handik minutu eta erdira telebista pizten du kirolen kanalean. Nik ohean etzanda jarraitzen dut aitaren telebistak eta etxepeak sortzen dituen soinuak aztertuz. Pixka bat geroago ama iristen da etxera, alkandora eta tutu formako gona jantzita, dotore-dotore. Beti berarekin daraman narruzko maletatxoa ohe gainean uzten du, eta lehenik aita agurtzera joaten da «arratsaldeon maitea» esanez. Ondoren nire gelara etortzen da eta ea eguna zelan igaro dudana galdetzen dit. Nik ez diot ezer erantzuten, isilik geratzen naiz nire ohean, sabaiari begira.

Martxoaren 17a, astelehena.

Gaur ikasle berri bat etorri zaigu gelara, Peru omen du izena. Ez da jendearekin asko egoten. Nahiago du bakarrik egon, edo hori diote besteek. Klaseak amaitutakoan, Peru ez da korrika atera, patxadaz hartu ditu gauzak eta atetik atera da pasabidean barrena. Nik gauza bera egin dut baina patiora atera naizenean ez naute niri begiratu, Peruri baizik. Nik ere begiratu diot berari, eta etxerako bidea hartu dut.

Ekainaren 19a, ostirala.

Lau hilabete dira jada Peru gurekin denetik. Gaur kanpo-ekintza egin dugu eta mendira joan gara, hostoak eta halakoak biltzera. Ekintza bikoteka zenez, niri Perurekin tokatu zait. Igoera hasi dugunean, ez diogu tutik ere esan elkarri eta aurrera jarraitu dugu biok, mendian gora. Belardi batera iristean, andereñoak objektuak bilatzen hasteko agindu digu eta denak joan dira presaka zerbaiten bila. Gu ez, Peruk eta biok patxadaz hartu ditugu tresnak eta pagadi batera hurbildu gara. Hostoak biltzen ari ginela, pago baten itzalpean etzan da Peru, eta zerura begira jarri da, nik nire gelan egiten dudana bezalaxe, sabaiari begira. Alboan etzan naiz,

bere begirada galduari erreparatuz. Bat-batean, begiratu eta esan dit:

—Zer ari zara niri begira? Tximuak al ditut aurpegian? Ez ezazu denborarik galdu eta disfrutatu zeruko bistaz, laster euria dator eta! —esan dit irribarrea ahoan.

Burua biratu dut eta zerura begira jarri naiz.

—Egia esan, oso ederra dago zerua gaur —esan diot.

Ez dut bere erantzunik jaso eta isilik geratu gara biok.

Handik gutxira andereñoa entzun dugu deika. Ea zer lortu dugun galde-tzean, denak hasi dira hostoak, zomorroak eta abarrak ateratzen haien saskietatik. Guk ez ditugu pare bat margarita baino gehiago jaso.

Bazkaldu ondoren, denbora libre apur bat eman digute. Niri lehengo lekua oso atsegina egin zait eta, harantz abiatzera nindoala, norbaitek besotik heldu dit:

—Itxaron, zurekin noa —esan dit Peruk—. Ez dizut bakarrik joaten utziko, zu zaren baldarrarekin galdu zintezke —esan eta barre egin du.

Hasperen bat bota eta nirekin etortzen utzi diot. Biok etzan gara lehengo pagoaren itzalean eta zeruari erreparatu diogu. Denbora luze egon gara etzanda, Peruk isiltasuna hautsi duen arte:

—Hau asperraldia! —esan du nazka aurpegiaz.

—Joan zaitezke, nahi baduzu... —erantzun diot.

—Ez, barregura eragiten didazu, hain zara arraroa... —esan dit burla doinuaz.

—Beste bat... —pentsatu dut neuretzako eta esan diot:

—Hara! Ni arraroa? Eta zu zer? Zu bai zarela arraroa! —esan diot bere iruzkinari aurre eginez.

—Ez, ez, ez... Ni ez naiz arraroa —begiratu eta esan dit—. Ni diferentea naiz.



Ambrosioren bizitza

*Gontzal Sagastabeitia Intxaurbe
San Adrian BHI.*

Bazen behin 60 urteko gizon bat, Ambrosio deitzen zena. Ambrosio langile oso, oso, oso txarra zenez, lan egiten zuen lantokitik beti kanporatzen zuten. Itsusia zen eta gainera oso txarto usaintzen zuen beti. Bilbon bizi zen bakarrik, beno, bakar-bakarrik ez, Pestuncio izeneko mofeta zuen maskotatzat (seguru aski, horixe zen hain txarto usaintzearen arrazoia).

Egun batean, egunkari kiosko batean lan egiten zuen bitartean, ekaitz elektriko bat hasi zen eta Ambrosio zegoen kioskoa burdinazkoa zenez, beldurtu zen. Bazekien burdinak elektrizitatea erakarri egiten zuela, eta horregatik egunkari kioskotik alde egin zuen. Baina burdinak elektrizitatea erakartzen zuela jakiteak ez zuen esan nahi Ambrosio azkarra zenik. Kioskotik burdinazko euritako oso altu batekin atera zen eta, nola ez, tximista batek bete-betean eman zion, K.O. utziz.

Itzartzerakoan, izugarrizko kiratsa usaindu zuen Ambrosiok. Hasieran, lanera eraman zuen ogitartekoa zela pentsatzen zuen, usteltzen ari zena; baina begiak zabaltzerakoan, Basurtoko ospitalean zegoela konturatu zen eta kirats hori



bere mofetarena zela, ospitalera bisitatzera etorri zelako. Pestuncio mofeta izugarri azkarra zen, Ambrosio baino mila aldiz azkarragoa. Bere izenak dioenez, oso txarto usaintzen zuen baina Ambrosio ohitu egin zen kirats hori usaintzera (bere etxeak Pestuncioren kiratsa baino askoz txarrago usaintzen zuen eta).



Ambrosiori alta eman ziotenean, izan zuen lehenengo notizia kioskoko lanetik kanporatu zutela izan zen. Orduan, ideia bat izan zuen: bere negozio propioa egin. Asteburu osoan egon zen bere etxean pentsatzen zerena izango zen negozioa (denbora gehiago zuen lanetik kanporatu eta gero).



Igande gauean, telebista ikusten zuen bitartean, “NASA” agertu zen telebistan. Horretan inspiratu zen eta “NASA” bezalako negozioa egitea bururatu zitzaion. Baina estazio espazial bat eraikin beharrean, espazioan yogur-tezko denda bat eraiki nahi zuen.

Behar zuen material guztia lortzeko ez zuenez dirurik zabortegira joan zen, bertan zeuden burdinazko gauza guztiak biltzeko. Etxera bueltatzean nabe bat eraikitzen hasi zen, baina lortu zuenarekin ezin zuen ezta gidariaren kabina eraiki ere, eta konturatu zen horrela ez zuela ezer lortuko. Oso triste geratu zen, ezin zuelako bere ametsa bete.



Bat batean, “NASA”ko nabe bat lapurtzea bururatu zitzaion Ambrosiori. Pestunciok bazekien ez zela ideia ona eta esaten saiatu zen baina Ambrosiok, ideia ona zela pentsatzen zuenez, ez zion kasurik egin bere mofetari.

Estatu Batuetarako lehenengo bidaia hartu zuten Ambrosiok eta Pestunciok, “NASA”ri lapurtzeko esperantzarekin. Estatu Batuetara heltzerakoan, “NASA” non zegoen galdetzen hasi zen Ambrosio, baina inork ez zekien non zegoen. Azkenean, “NASA” aurkitu zutenbaina ez zieten uzten sartzen. Pestuncioki bururatu zitzaion zaborra botatzen duten lekutik sartzea, eta Ambrosiori asko gustatu zitzaion ideia hori. Zaborra botatzeko zulotik sartzerakoan, konturatu ziren zuloa ez zela zaborra botatzeko, airezko konduktuak baizik. Hori izan zen “NASA”koek hain errez aurkitzearen arrazoia, Ambrosiok eta Pestunciok batera zuten kiratsa izugarritzkoa zen eta. Ambrosio eta Pestuncio arineketan igo ziren teilatura ihes egiteko.



Heldu zirenean, Ambrosiok nabe espazial bat ikusi zuen teilatutik eta hara korrika joan zen, nahiz eta Pestunciok saihesten saiatu. Zorte ona izan zuten, nabeko atea zabalik zegoen eta. Sartu bezain laster, Ambrosiok pizteko botoiari eman eta nabea zerurantz igotzen hasi zen. Nabea ez zegoenez lurperatzen


zekien inor. Ilargiaren kontra jo zuen nabeak. Zortez inor ez zen hil eta zauririk gabe atera ziren. Ambrosio asko poztu zen ilargira heltzeagatik eta izozkien zapore desberdinetan pentsatzen hasi zen. Pestuncio, ordea, oso beldurtuta eta urduri zebilen telefonoa apurtu zelako, ez zegoelako Lurrarekin komunikatzeko modurik eta ez zegoelako janaririk.



Pestuncio telefonoa konpontzen saiatzen zen bitartean, Ambrosio izozkiak egiten hasi zen. Azkenean, Pestuncio konturatu zen telefonoa konpontzeko ahaleginek ez zutela ezertarako balio eta nabea airea galtzen ari zela. Traje espazial bat ipini zuen Pestunciok eta beste bat hartu nahi zuen Ambrosiorentzat, baina ez zegoen lehen zegoen lekuan. Pestunciok pentsatu zuen kanpora atera zela. Beldurtuta, Pestuncio kanpora atera zen eta han zegoen Ambrosio, lurrean eserita, baina ez zen hil. Ingurura begiratu zuen Pestunciok: dena harez beteta zegoen eta bero handia egiten zuen. Pestuncioren aurrean bertan, dromedario bat zegoen. Ez zuen ezer ulertzen, baina laster konturatu zen: ez zeuden Ilargian, Sahara basamortuan baizik!

Iraganak urratzeak uzten ditu

*Beñat Ribacoba Gómez,
Miguel de Unamuno BHI.*



Urtarrilak 10

Zerbait gertatu da: institutura joateko prest nengoela, osaba Laurik deitu du. Ama negarrez hasi da, amonarengana hurbildu eta zerbait esan dio.

Osaba Lauri gizon serioa da, haren lana seriotasunez hartzen du, jendea agurtzen duenean ere ez du poztasunik transmititzen. Medikua da, oso ona gainera. Bera beti izan da nire eredu; nagusia izatean bera bezalakoa izan nahi dut baina pixka bat alaiagoa, beharbada.

Geroago niregana hurbildu dira ama eta amona. Orduantxe jaso dut berria.

Urtarrilak 11

Gaur institutura joan behar izan dut. Ez nuen inork atzokoaren berri izatea nahi eta horrexegatik bakarrik irakasleei azaldu diet gertatutakoa. Baina euskara klasea ailegatu denean guztiek jakin dute horren berri: euskarako irakasleak, Anak, guztien aurrean kontatu du. Bat-batean Anarenganako izugarrizko amorrua etorri zait.

Ana Bengoa lehenengo mailan izan nuen irakaslea da, nahiko jatorra gainera. Niri oso deigarria egin zitzaidan haren jarrera ikasleekin. Bera ez zen beste irakasleak bezalakoa. Berak gu jarrera indartsu batekin tratatzen gintuen, bere ikasleek kurtsoa gainditzea bere betebeharra balitz bezala. Baina azken finean, horrek gauza onak zekartzan.

Azkenean pasatu zait amorrua eta ezer pasa izan ez balitz bezala geratu naiz, txintik esan gabe.

Klaseak amaitu eta korriketan etxera joan naiz. Ezin izan ditut etxeko lanak egin. Uste dut gaurkoz nahikoa izan dudala neure barruko tristura eta goibeltasuna jasaten... baina ez, hiletara joan behar izan dut eta senideen azkenengo agurrak entzun eta gero, bi serenata jo nahi izan ditut hemendik behetik, han goian guztion sentimenduak entzun ditzan.

Urtarrilak 12



Oraindik ezin dut sinetsi. Oraindik ikusten dut kaletik ibiltzen edo bere xake partidetan, bere jolasetan, bere irribarreetan eta bere tristura-momentuetan. Hark gustuko zituen partiduak ikusten, tabernan, Fernando Alonsoren lasterketetan...

Gurutzetara joaten naizen bakoitzean beti pentsatzen dut kalean ikusiko dudala eta amari galdetzen diot: —bagoaz Gurutzetara bisitaldi bat egitera? Baina ez, gauzak horrela dira eta kitto. Ez dut berriz ere ikusiko. Hori guztiok jakin beharra dugu eta, nahiz eta ikuspuntu batetik negar egin, ez dugu horretan pentsatu beharrik. Bai, ona da kasu horretan negar egitea, baina bizitza osoan ezin dugu leporatu azken momentu horretan berarekin ez egoteagatik, edo bizitzako momentu konkretu batean pertsona hura txarto tratatzeagatik. Ez dago atzera egiterik eta horrexegatik pertsona guztiak ondo tratatzen saiatu behar gara.

Urtarrilak 13

Bizitza honetan denok galtzen dugu norbait. Eta ez da arkatx bat galtzea bezala, ezta liburu bat bezala ere. Ez. Pertsona bat galtzen duzunean ez duzu berriz ere pertsona hori ikusiko. Ezin izango duzu pertsona hori berriz erosi; eta horretaz konturatzen zarenean, jadanik heldua zara.

Telebista jarri eta pelikula momentu horretan munduan egon ahal zen pelikula jasanezinena zen; eta ez pelikula txarra zelako, baizik eta pelikularen momentu batean honela esaten ziolako ume batek haren amari:

—Eta aita? Non dago aita?...

Horrek aitite ekarri zidan gogora.



Juantxo txikia

*Eneko Flecha Minguez,
Miguel de Unamuno BHI.*

Bazen behin Juan izeneko egurgile bat. Gizona oso baxua zenez, denek “Juantxo txikia” esaten zioten. Bere bizitza lasaia zen basoan. Etxola xumea eta gauza gutxi zeuzkan; hala ere, pozik eta zoriontsu bizi zen bertan.

Egunero oso goiz esnatu eta ohetik saltoka altxatu ondoren, ogi puska bat eta esne epela gosaltzen zuen. Gero, tresnak hartu eta baso sakonerantz zuzentzen zen lanean jarduteko. Bidetik oso gustura zihoan txistuka eta guzti; adarretako txoriek ere agurra itzultzen zioten!

Behin, zuhaitz erraldoi baten enborra ebakitzen hasi zenean, bere izena behin eta berriro esaten zuen ahotsa entzun zuen. Gure Juantxo txikiak bere ingurura begiratu zuen baina handik ez zegoen beste inor. Pixka bat izututa, bere lanera bueltatu zen. Handik gutxira, gauza bera gertatu zitzaion berriro. Aldi horretan, berriz, zuhaitz barrutik zetorrela ohartuz, aizkora lurrean utzi eta zuhaitza aztertzeari ekin zion. Bat-batean, zuhaitza izugarrizko mugimenduak egiten hasi zen eta zauri antzeko ebakiduretatik odola-edo zeriola ikusi zuen. Aho zabalik geratu zen aizkolaria begien aurrean zuena sinetsi ezin zuelako: zuhaitz hiztuna, mugikorra eta odolduna.

Gutziz ikaraturik, Juantxok aizkora hartu zuen lurretik eta atzera egin zuen handik ahalik eta lasterren irteteko. Baina jarraian ahotsak, goxo-goxo, ez joateko eskatu zion. Ume baten ahotsa zirudien. Orduan gizontxo, tristatuta, enborrera hurbildu zen eta berak eragindako zauriak laztandu zizkion sendatu nahian.

—Ez kezkatu, laguna, orbainak goiz itxiko baitira, baina nire itxura...

—Zer esan nahi duzu? Zer gertatzen da zure itxurarekin? —Juantxo txikiak, harrituta.

—Ba, zure aurrean duzuna ez dela nire benetako itxura. Duela urte asko basoko sorginak nire gurasoei mendekua hartu zien eta horren ondorio latza, neu naiz.

—Baina, mendekua... Zergatik?

—Nire aita ere egurgilea zen, eta sendoa gainera; ematen zuenez, bere lanean inguru hauetako trebeena zen, hau da, arrakasta handiko gizona. Ezkondu zenerako bazuen etxea, justu hor, basoa argitzen denean. Ez zegoen munduan gizon zoriontsuagorik, batez ere bere emaztea haurdun zegoela jakin zuenean. Udako gau batean, oso bero eta lehorrean, emakumeari erditzeko momentua heldu zitzaion. Zoritxarrez gau berean ia herriraino ailegatu zen izugarritzko sutea piztu zen basoan. Batzuek aitaren errua izan zela esan zuten; berak, ordea, basoko sorgintxoari leporatu zion ardura. Nolanahi ere, basoko sorginak Lurreko sako-nuneetan ezkutatu behar izan zuen, baina joan aurretik mendekua hartzeko zin egin zuen. Nire amak bi seme erditu zituen, bikiak. Basoko sorginak, bere ihesaldian, bietako bat, umerik sendoena, bahitu zuen ordainean eta berarekin eraman ezinik, zuhaitz bihurtu zuen —bukatu zuen zuhaitzak.

Gure Juantxo txikia muturik zegoen. Bere bihotzeko taupadak gero eta arinago zihoazen. Azkenean, herabeti, galdetu zuen:

—Eta beste bikiarekin zer gertatu zen?

—Ama goiz hil zen eta aitak bere burua errudun sentitu zuenez, basoa utzi eta umetxoa abandonatu zuen.

—Baliteke hemendik hurbil ibiltzea? —ihardetsi zion Juantxok.

—Bai... —erantzun zion besteak.

Iluntzear zegoen basoan eta Juantxo txikia han zegoen, zuhaitzaren ondoan eserita, pentsakor eta mugiezinik, bera ere zuhaitza izango balitz bezala. Bat-batean, zutitu zen eta etxerako bidea hartu baino lehen, biharamunean konponbidearekin bueltatuko zela hitz eman zion zuhaitzari.

Gau hartan gure egurgileak ezin izan zuen ia lorik egin, bueltaka eta bueltaka konponbide bat bilatzen ari izateagatik. Azkenik, amets sakonean sartu eta horretan bere burua, batzuetan oso txikia eta aurpegiarekin, beste batzuetan, berriaz, oso handia eta aurpegiarik gabe ikusi zuen. Zer esan nahi zuen horrek? Bat-batean, izerditan esnatu zen eta sorginaren bila oso goiz ateratzea erabaki zuen.

Egunsentian basoan sartu eta animalien laguntzaz kobazulo sakon, heze eta ilun baten aurrera heldu zen. Gure Juantxo ausarta, pentsatu gabe, kobazuloan barneratu zen eta beltzez jantzitako atso bat topatu zuen. Juantxok, pixka bat

beldurtuta, bere burua aurkeztu zuen eta atsoak bere zain zegoela erantzun zion. Baina zelan zekien andre zaharrak nor zen bera, basoko sorgina ez bazen...?

—Badakit zergatik etorri zaren, Juantxo txikia. Oso bihotz-onekoa izan behar duzu hona hurbiltzeko. Agian, ez dakizu nire ezkutalekua ezagutzen duena ez dela hemendik ateratzen.

—Baina, ateratzen ez banaiz, zelan berreskuratuko du zuhaitzak gizaki itxura? Mesedez, lagundu eta zuhaitzarena konpondu ondoren, zuregana bueltatuko naizela eta, hemen, betirako geratuko naizela hitza ematen dizut.

—Ongi da, Juantxo maitagarria, zure bizitza bere bizitzaren truke. Ez da makala! Hartu edabe hau eta sakabanatu egunero tanta batzuk sustraian inguruan. Egin horrela hoge egunetan.

Besterik gabe eta eskertu eta gero, Juantxo kobazulotik irten eta itxaropenez beteta, basorantz zuzendu zen.

Sorginak esandakoa hitzez hitz bete zuen eta hogeita batgarren egunean, goiz iratzarri zen egurgilea zuhaitza ikuskatzera joateko. Lekura heldu zenean, guztiz nahastuta, bere inguruari begiratzen hasi zen baina ez zuen zuhaitza inondik aurkitu. Horren orde, sastraken artetik makurtuta, hoge urteko mutil sendo bat ageri zen biluzik. Juantxo txikiak aurpegiari begiratu zion ispilu batean bere irudia islatuko balitz bezala; orduan ulertu egin zuen.

Ez zuen denborarik galdu. Arineketan etxera eraman, arropa eta janaria eman eta bere ohea eskaini zion. Gauean Juantxok, zaratarik egin barik, etxola utzi eta emandako hitza betetzera zuzendu zen.

Nahiko berandu zen eta ilun zegoen. Juantxok ez zuen kobazuloa topatzen baina ilargiaren distirari esker harkaitz ondoko lamia zuri eta eder bat miretsi ahal zuen. Hark irribarre batez agurtu zuen Juantxo.

—Gabon, andereño —agurra itzultzen— badago hemendik kobazuloren bat? Uste dut galduta nabilela eta...

—Ez, Juantxo txikia. Dagoeneko ez dago kobazulorik; zu hartatik atera zinenetik desagertu da. Zoaz, lasai, etxera zure zain dagoena zaintzera.

Orduan, bere etxolarako bidea hartu zuen Juantxo txikiak, edo hobe esanda, Juantxo bihotz handikoak.

Sagu tranpa

*Stefan Moragues Benito,
Esclavas SC-Fátima HLBHIP.*

Dardarka atera zen uretatik baina bere ezpainetan irribarre atsegin batekin, ondo egin zuelako. Lukasek berak egindako ur-botilako itsasontzi bat zeukan bere eskuetan. Gustukoa zuen. Txikitatik intxaurrekin egindako ontziak begiratzeko miretsita geratzen zen eta poliki-poliki hobeto eta handiagoak egiten hasi zen. Fama apur bat lortu zuen botilez egindako ontziekin barruan pertsona batekin flotatzea lortu zuelako eta gidatu ahal zelako.

Lukasek arazo ekonomiko asko zituen bere herrian, Suedian, eta ezinezkoa zen unibertsitate batean ikastea. Lukasek Nautika eta Itsasontzi Makineria ikasteko zaletasuna zuen.

Egun batean, Lukasi Bilbotik bidalitako gutun bat heldu zitzaion. Gutuna irekitzean, Deustuko Unibertsitatearen helbidea zeukala eta suediar natural batera itzulita zegoela ikusi zuen. Gutunaren beste aldean beste bi hizkuntzatan idatzita zegoen, ziur aski ingelesez eta erderaz.

Eskutitz hartan Euskal Unibertsitate batera gonbidatzen zitzaion, bere azkeneko proiektua ikusi eta gero, Nautika ikastera. Kurtsoa hiru hilabetetan hasten zen eta berandu hasia arazo larria izango zen kurtsoa ohitzeko. Bilaketa bat egin eta gero, mapak eta prezioak ikusi zituen. Oso bidaia garestia zen eta ordainezina bere familiarentzat, ez ziren txiroak, baina ez zen posible berarentzat. Pixka-

naka-pixkanaka bere animoa galduz hasi zen eta lortezina zela pentsatu zuen.

Gau hartan, itsaslabar baten gainazalean eserita, olatuak begiratzen ideia ausart bat izan zuen. Posible zen ondo ez ateratzea, baina bere zaletasuna lortzeko azkeneko aukera bat zuen: bere ontzian bidaia egin edo ikasi ez!

Pentsatu eta egin: gau berean ohar bat utzi zion bere familiari nora zihoan azaltzeko eta, nola ez, familia agurtzen.

Bere ontzirik hoberena hartu zuen (azkenengoa); sardina lata asko eta ur asko hartu zituen eta mapa batean ibilbidea marraztu zuen, Londresen geldione bat eginez.



Ez zekien bidaiak zenbat iraungo zuen. Fiordo batera abiatu zen goizeko lehenengo orduetan. Itsasoaren olatu boteretsuak begiratu zituen, arnasa hartu eta itsasoratu zen.

Ontzia zurezko oholez eta ur botilez eginda zegoen; hori dela

eta, ura pasatzean berriro itsasora isurtzen zen eta ez zuen arazorik izan, beti flotatzen bai-tzuen. Beste alde batetik, ontzi xumea eta txikia izateak ere arazoak zekartzan, korronteen mende zegoen eta. Ontziak bela bat eta arraun pare bat zituen, beharrezkoa izatekotan erabiltzeko.

Haize korronteak ez ziren beti alde egon, baina arraunekin ontzia mugitu ahal zen eta korronteak alde egotean bela ateratzen zuen. Inoiz ez zuen pentsatu bere bizitzan horrelako arazorik izango zuenik eta ez zegoen guztiz prest, baina bere zaletasuna dohainik ikasteak bere indarra pizten zuen arraun egiteko.

Elikagai ugari hartu zituen ez zuen arazorik izan denboraldi luze batean. Bi aste eta gero, Britainia Handiko kostaldera heldu zen neke-neke eginda. Haren ontzia egoera onean zegoen eta elikagai batzuk zituen momentuz, baina haren go-goa gero eta txikiagoa zen, ezin zuen ondo ibili lurrean, eta oso usain txarra zuen. Oinez, Londresera heldu zen autobideak jarraituz. Londres lehen aldiz ikustean, liluratuta geratu zen momentu batean suediar hiririk handienekin konparatuz ikaragarria baitzen. Eta hirian sartu eta gero ez zitzaion ideia eral- datu. Kale bakoitza bestea baino miresgarriagoa zen, eta pertsonak... denetariko pertsonak zeuden, kultura eta ideia desberdinetakoak. Ez zen suediar bakarra, hark espero zuen bezala.

Gutxi gora-behera, aste bat egon zen Londresen. Itsasoa ikusten zuen bakoitzean ez zuen berriro nabigatzeko gogorik. Gero eta gutxiago pentsatzen zuen Euskal Herrian eta unibertsitatean.

Bitan saiatu zen beste plano batzuk egiten eta korronteak ikasten, baina bidaiatzeko asmoak murrizten hasi ziren.

Neska bat ezagutu zuen eta horrek nautikaren ideiarekin guztiz amaitu zuen. Hiru egun geratzen ziren unibertsitateko epea amaitzeko, eta, konturatu gabe, denbora amaitu zitzaion.

Eta betirako bizi izan zen Ingalaterran, ezkondu eta hil arte, eta bere asmoak inoiz ere ez zituen bete.

Itsasontziak ahaztu zituen betirako eta bere zaletasuna galdu zuen guztiz, Londreseko hiri ikaragarrian.

D
KATEGORIA
(DBHko 3. eta 4. mailak)



Urtarrilak 27

*Jone Askaiturrieta Ostolaza,
Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI.*

Joxean Mendieta, 46 urte. Urtarrilak 27, 07:30 a.m.

Fakturak. Argia. Ura. Janaria. Ez dago guztirako dirurik. Gaur ere kalera noa, zerbait bilatzera. Gaur ere itxiko didate atea begien aurrean. Betiko kontu ziztrinak.

Lana, lana eta lana. Lana galdu nuenetik dena hondora joan da. Etxea, familia. Ez dugu ur berorik, galdara apurtuta dago duela hilabete bat edo. Arriskutsua dela diote baina ez dugu konpontzeko dirurik. Langabeziaren komeriak.

Ez dut ezertarako gogorik, sofan bota naiz. Hilabete bukaera iritsi da eta berriz gabiltza zenbaki gorritan. Gaur iritsi beharko ziren fakturak. “Miren, non zabilta?” Ez dut erantzunik. Telefonoan dabil. Norekin ote? “MI-REEEEEEEEEEEEEEEEEEEEEEN, NON DEMONTRE DAGO POSTA NAZKAGARRIA?! Ekardazu.” Han dator, posta bota dit, praka beltz estuak daramatza soinean. Badira bost urte ez dituela jantzi. Makillaje apur bat ere. Beste batekin dabil, badakit. Bestela, zergatik egongo zen hainbeste denbora etxetik kanpo? Lan

bila doala dio. Gezurra. Zerbait du hemendik kanpo. Ziur nago.

Ez dago kaferik, garagardo bat hartuko dut. “Joxean... garagardoa goi-zean?” “Arazorik?” Isilik geratu da. Han dago aulkian eserita, begirada nazkagarri hori duela. Zera, “gorroto zaitut eta ni naiz biktima” idatzia duen hori. Ez du esandakoa inoiz betetzen, antza, ez du ulertzen hemen ni naizela gizona, agintzen duena. Ni naiz zerbait egiteko baimena eman diezaiokeen bakarra. Ni naiz bere bizitzan bakarra. Hori ziur ez duela ulertzen.

Hor kanpoan daukana baino txarragoa naiz. Etxera dirua ekartzen nuen bitartean ez zen gertatzen horrelakorik... Begira zein azkar aurkitu duen beste bat. Gainera gezurrak baino ez ditu botatzen. Ez diot sinesten. Nirea da, ez beste inorena. Beste batekin irudikatzen dudanean zerbaitek erretzen dizkit barneak, argh! zer nolako nazka. Ezin dut jasan, eta hurbilen dudanaren kontra egiten dut. NIREA DA, baina badirudi gero eta urrunago dudala. Gero eta hotzagoa da nirekin, ez dit kasurik egiten. Nazka ematen dit halakoetan. Unibertso osoa bere inguruan biraka dabilela uste duenean. Baina gero, bera da negar egiten duena. Gero bestearengana joango da negarrez, kontsolamendu bila eta hala hasiko dira musuka... Laztanka... ARGH! Ezin dut jasan, bigarren garagardoa.

Umeak ere nire kontra jartzen dabil, sumatzen dut. Seme txikiak gaur Mirenen gurasoenean egin du lo, nigandik aldentzeko ahaleginetan dabil. Neska, berriz, bah, amaren modukoa da. Emakume guztien modukoa, ez du merezi harekin hitz egiteak. Ane sartu da sukaldean, eskolara joateko prest. Hauek dira eskolako bere azken egunak. Eskolak ez du ezertarako balio, zertarako ikasi gero lanik gabe egongo da eta! Ez du jarraituko eta kitto. Sartzean, saminez begiratu nau, begietan gorroto itzalak dituelarik. Maiteri irribarre traketsa egin dio. “Kaixo Miren.”, “Agur aita.”

Beste garagardo bat hartuko dut. Dena doa pikutara.

Xabier Mendieta, 5 urte. Urtarrilak 27, 4:30 p.m.

Etxera heldu berria naiz eta zahar usaina dago, ez dut batere gustuko. Gaur amamarenean egingo dut lo berriro ere, alde batetik gustatzen zait, bere krocketak gustuko ditudalako eta gauean ipuina kontatzen didalako. Baina aita eta ama faltan botatzen ditut. Baita Ane ere. Amatxoren gaueroko muxua, ohean nagoela. Aitatxorekin futbol partiduak. Aneren bromak. Aita jada ez doa lanera, kaleratu egin dute txarto portatu omen delako. Klaseko askok inbidia didatela esaten dute, gurasoak etxean ditudalako beti. Niri ez zait gehiegi gustatzen aita eta ama hase-re daudelako. Ez diote elkarri musurik ematen, askoz maizago oihukatzen dute. Batzuetan gauean ezin dut lorik egin gehiegi egiten dutelako oihu eta Anerengana joaten naiz eta zergatik den galdetu ohi diot. Ez dit erantzuten eta berarekin geratzen naiz lo egiten. Negar egiten du. Nik ere. Ane oso triste dago aitak eskola uzteko eskatu diolako. Nik hori kriston zortea dela esan diot baina ez dit erantzun, besarkatu egin nau.

Ez dakit, zerbait bitxia gertatzen ari da, gauza txarrak baino ez zaizkigulako gertatzen. Duela astebete edo, bainugelan aurkitu nuen hanketako eta besoe-tako ubeldurak estaltzen, negarrez, eta eskaileretatik behera erori zela erantzun zidan. Kontua da gu etxabe batean bizi garela. Bai arraroa.

Atzo amamarenera eramanez ninduen dena ondo aterako zela esan nion. Ziur nago hala gertatuko dena.

Maite Zubiri, 45 urte. Urtarrilak 27, 9:16 p.m.

Ez dut etxera itzuli nahi. Beldur naiz. Egunero handik irteten naiz lana bilatzera noan aitzakiaz baina, benetan, behar dudana lasaitasunaren bila irteten naiz. Parkeko banku honetan esertzen naiz egunero, etxera itzultzean dena lehen modukoa izango den itxaropenaz. Hau guztia amesgaizto hutsa baino izan ez balitz bezala. Begiak ireki eta bat-batean ezer gertatu izan ez balitz bezala. Baina azkenaldian agertzen zaizkidan zauriek ez diote horrelakorik. Ez bihotzekoek, ez gorputzekoek.

Goizero etxetik irteten naiz berarekin bakarrik geratzeko beldur naizelako. Bere begietan maitemindu ninduen gizon hura ez dudalako ikusten. Ez, ez dudalako uste noizbait itzuliko denik. Ez dudalako ezagutzen. Egunero, garrasiak baino ez ditut entzuten. Ihes egin nahi dut, baina... eta haurrak? Ez dute gertatzen denaren berri jakitea merezi. Nahikoa kakaztu diegu bizitza. Xabi txikia babesteko beharra izan nuen, eta nire gurasoenera eramanez nuen ur berorik ez genuen aitzakiaz. Nire gurasoenera eramanez nuenean negar baino ez nuen egiten. Xabik gogor besarkatu ninduen eta “Amatxo, guztiok ondo egongo gara, dena ondo aterako da.” esan zidan belarrira. Are indartsuago besarkatu nuen orduan... Zer gertatzen den jakin gabe behar nituen hitzak esan zizkidan. Momentu hartan konturatu nintzen haiek gabe ez nukeela izango aurrera egiteko indarrik. Babestu behar nituen, haiek ni babesten ninduten eran.

Ane. Nire alde beti, zerbait badaki... Beldur naiz. Joxeanek gero eta bortitza jokatu du. Eta egunen batean nire kontra joan beharrean haren kontra joko balu? Eta gaur izango balitz eguna? Ezingo nioke inoiz neure buruari barkatu. Joan behar dut. Altxatu egin naiz baina... Ezin naiz mugitu hankak lurzoruan itsatsi balitzaizkit bezala. Atzo gaueko irudiak ditut. Mespretxua eta arbuioa bere begiradan. Bere ukabila nire sabelean. Oihuak. “Ez duzu ezertarako balio, zaborra baino ez zara.” Arrazoi du. Koldar hutsa baino ez naiz. Beldurrak mugituko panpina hutsa. Benetan ausarta banintz, telefonoa hartu eta salatu egingo nuke, banku ziztrin honetan egun osoa igaro beharrean, negarrez. Noizbait txanponen bat botatzen didate, erruki aurpegia jarritz. Ez dut besteen errukia nahi. Ane lagundu behar dut. Etxerantz jo dut korrika.

Itzultzen naizen bakoitzean, zulo beltz baten barruan sartuko banintz bezala sentitzen naiz. Kobazulo iluna. Etxean sartu baino lehen beti hartzen dut arnasa eta Xabi eta Aneren aurpegia irudikatzen ditut. Irribarre egiten dute. Duela

asko ez dut haien irribarrea ikusi. Beldurraren irudia baizik.

Arnasa hartu, giltza sartu, atea ireki. Han dago. Han daude. Hiru jo- gurtontzi daude mahai gainean, hozkailuan ez dago besterik. Isilean jan ditugu. “Ane, zure logelara joan zaitezke? Amarekin hitz egin behar dut” Arnasa hartu dut. “Ez.” dio. Babestu behar dut. “Ane, mesedez...” esan diot. Beherantz begiratu eta bere logelarantz joan da.

Begiak itxi, listua irentsi, pausu bat atzera. Bere bi eskuen indarra nabaritu egin dut lepoaren alde bietan, ia arnasa hartzeko kapaza ez naiz. Beherantz erori naiz, belauniko geratuz, gorantz begira, bi begietatik malkoak darizkidala. Han goian dago, niri begira. “NON DEMONTRE IBILI ZARA?!” Hasperenka erantzun diot. “Iana bilatzen.” Begietara begiratu dit, “GEZURTI HALAKOA, NOREKIN IBILI ZAREN DIOTSUT, ZER USTE DUZU TONTOA NAIZELA?!” “Inorekin ez Joxean...” Lehenengo golpea. Sabelean bere ukabila sentitu dut, tinko, mingarri. “NIREA ZARELA esadazu.” Bultzakada batez korridoreko lurrera bota nau. “Zurea naiz... Ez beste inorena.” Zaplaztekoa oraingokoan. “ALTUAGO MIREN!” “ZUREA NAIZ JOXEAN” Irribarre egin du, harro. Elastikotik hartuta altxatu, pasilloan zehar eraman eta ohera bota nau. Musuka hasi zait. Ez dut maite. Ez dut nahi. Ez dut irtenbiderik.

Ane Mendieta, 16 urte. Urtarrilak 27, 23.35 p.m.

Lo egin ezinean nabil. Azkenaldian badirudi loak begitan hartu eta ez nauela hartzen. Sukaldean nago, hozkailuaren argipean, gosearen iluntasunean. Hozkailua hutsik dago. Berriz ere. Nire urdaila bezala. Sukaldeko horman Athleticen elastiko sinatua eskegita dago, “Aupa lehoiak!” esaldia idatzita duelarik. Nik bai dudala lehoia tripetan orroka. Broma kaskarra, barkatu. Ez nabil txantxetarako. Burua eztanda egitear dut.

Patrika husten doan heinean, lehen zeneukan bizitza berreskuratuko ez duzula konturatu egiten zara. Etxean egoera kaskarra baino kaskarragoa da. Ez dut lagunekin joateko dirurik. Arropak bigarren eskukoak dira. Ezin izango naiz unibertsitatera joan eta hainbeste gogoko nuen arkitektura karrera ikasi. Ezin izango dut Batxilergoa ere egin. Aitak ez dit uzten, nik etxera dirua ekartzea behar omen dute. Ez al du niregan pentsatzen? Nire etorkizunak ez al du fakturretako zuloek baino gehiago balio? Familia honetan jarraitzeko arrazoi bakarra Xabi dut, neba txikia. Nolatan utzi bera hemen bakarrik etxean dugun egoera honetan... Ezinezkoa. Gehiegi maite dut. Baina.. azken finean... Badakit zer nahi duen aitak. Nik ez ikastea nahi du, ezjakin hutsa izateko, hemen etxean gertatzen ari denaz ez konturatzeko eta erabakiak hartzeko kapaza izan ez nadin. Baina ez daki jada berandu dela, eta nazka diodala.

Kontua da hau guztia laster bukatuko zela uste nuela, baina... Antza, ez da txantxa, ez da pare bat hilabeteko kontua. Badirudi amildegia uste baino sakonagoa dela eta oraindik ez dugula hondoa ukitu ere egin. Gaizki genbiltzan jada eta

bat-batean kriston danbatekoa bezala iritsi zen. Amildegitik behera gindoazela apurtu zitzaigun jausgailua. Hori ez ezik, gure arteko loturak apurtuzjoan dira...

Gaur ere entzun ditut amaren garrasiak. Inoiz baino ozenago, inoiz baino mingarriago. Oihu bakoitzak belarriak zulatu eta neure buruan sartzen da garuna zulatuz. Gogorra da atearen bestaldean zer gertatzen den imajinatzea. Gogorra da ez jakinarena egin eta goizero irribarre faltsua jantzi behar izatea. Gogorra da askotan Xabi gauean niregana etortzea negarrez eta zer gertatzen den galdetzen didanean zer esan ez jakitea. Eta hurrengo goizean nire burkoa gu bion malkoez bustita aurkitzea. Gogorrakoa da orain Xabi etxean ez izatea.

Egia esan... beldur naiz. Beldur diot egunen batean esnatu eta amaren aurpegia ubelduraz estalita ikusteari. Beldur naiz gaur ama azkenengoz ez ote dudan ikusi. Beldur naiz egunen batean gure aurka itzuliko den hau guztia... Hau bukatzeko gogoia dut. Behingoz.

Amak ez du ezer egingo eta mugitu beharra dago. Ezinezkoa da. Aski da. Ez diot utziko gure bizitzak ospintzen. Heldu da neurriak hartzeko garaia. Esaiezu agur negarrei ama. Ostikadei. Ukabilkadei. Garrasiei. Gaur aro ilun honetako azken eguna da. Telefonoa hartu dut, zero, bat, sei. "Tratu txarren aurkako laguntza telefonoa, bai?" Arnasa hartu eta gutxika askatu dut... Aski da aita. "Ane Mendieta dut izena eta 16 urte ditut... Nire aita salatu nahi dut."



134. bezeroa

*Felipe Angel Salazar,
Ibaigane HLBHIP.*

Kristaletako lausoa kendu eta gero, leihotik begiratu zuen. Hotz egin arren gaueko zerua guztiz garbia zegoen hodeirik gabe, eta izarrek distira egiten zuten haien argi dardartsuekin, oso misteriotso izango zen gau hartan.

Kaleetan gero eta jende gutxiago zebilen. Normala zen, urte berrirako hiru ordu soilik geratzen baitziren eta guztiak etxean baitzeuden haien familia edo lagunekin afaltzen, elkarrekin partekatzen eta urte berriaren zain. Alabaina, Josu bestelako egoera batean bizi zen, gabon gauean bezala; berarentzat abendua batez ere, urtero bakarka bizi behar zuen beste agonia zen beheraldi batekin batera.


Hasperen egin zuen eta, egongelako besaulkian eseri ondoren, bere iraganari buruz pentsatzen hasi zen, nahiz eta ezbeharrez beteta egon; aitak familia utzi zuen Josu jaio zenean eta ama sute batean hil zen umeak lau urte zituenean. Geroago osaba batek bere zainketa lortu zuen, baina, 12 urte zituenean, osabak alkoholagatik kotxearekin istripu bat izan eta gero bizitza galdu zuen. Horren ondorioz, Josuk umezurztegi batean bizi behar izan zuen 18 urte bete arte. Ondoren, osabaren etxea eskuratu zuen eta orain, 23 urterekin, munduan bakarrik zegoen eta, oso lotsatia zenez, ez zuen lagunik. Behintzat ez zegoen kalean zenbait arlote bezala, ogibidea bilatzen baitzuen pizzak banatzen.

Nahiago zuen iragana aldatzea.

“Ding Dong!”

Bat-batean, ateko txirrinak jo zuten. “Nor izango ote da?” pentsatu zuen. Segur aski auzoko bat jaiak zoriontzeko. Josu zutik jarri zen eta, atera heldu zenean, behatxulotik begiratu zuen baina ez zegoen inor. “Norbait okertuko zen”. Buelta eman eta txirrina jo zuten berriro. Atea zabaldu zuen azkar baina ez zegoen inor. Bakarrik kutxa txiki bat lurrean, atearen aurrean. Kutxa hartu ondoren, solairuko alboetara begiratu zuen. Hala ere, ez zegoen inor handik.

Etxean sartu bezain laster, zurezko kutxa ireki eta barruan guztiz beltza zen landutako harri txiki bat zegoen. Harria hartu eta albo guztietara begiratu zuen. Gainera, barruan gutun bat ere bazegoen. Gutuna ireki eta irakurri zuen:



“134. bezeroa zure txanda da: Orain zu zara harriaren jabea. Nahi duzuna eska diezaiokezu. Egin behar duzun bakarra, zure eskaeran pentsatu eta harria lurrera botatzea da. Kontuz! Behin baino gehiago erabiliz gero, ondorioak oso txarrak izango baitira. Harria gehiago ez baduzu nahi, beste pertsona bati entregatu beharko diozu.”

—Txantxa izango da. Tontakeriak. —esan zuen nahasita.

Nahiz eta ez sinetsi, barruan itxaropen txiki bat zeukan bere bizitza aldatzeko aukera bakarra zelako. Ez zekien zer egin. Erlojua begiratu zuen eta bakarrik 5 minutu geratzen ziren urte berrirako. Telebista piztu zuen eta hamabietako kanpaiak entzun ondoren suziriak ikusi zituen; oso bakarrik sentitzen zen.

Egongelako sofán lo geratu baino lehen izandako azken pentsamendua, gutxienez, bere aitarekin egonda zoriontsua izango zela izan zen. Bat-batean harria eskutik erori eta lurrean jo zuen.

Ateko txirrinak Josu esnatu, atea ireki zuen eta gizon altu eta zerbait zahar-
kitua agertu zen:

—Kaixo

—Egun on

—Zu zara Josu Larrea?

—Bai, Zergatik?

—Semea, azkenean aurkitu zaitut —esan zuen poz handiarekin.

—Okertuta zaude, agur.

—Entzun mesedez. Barkatu orain arte ez agertzeagatik baina kartzelan egon nintzen 21 urtez beste gizon batekin okertu nindutelako. Oso historia luzea da. Azken bi urte hauetan zu bilatzen ibili naiz eta azkenean lortu dut.

—Hau ezinezkoa da. Zu ez zara nire aita. Berak utzi egin ninduen eta orain zoaz hemendik!! —oihukatu zion larritasun-krisi batean. “Harria!” pentsa-



tu zuen. Etxean sartu eta egongelara joan zen harria bilatzera. Besaulki gainetik bilatu zuen, baina oinarekin zapaldu zuenean dena ulertu zuen: nahi gabe erori zitzaion.

—Sinetsi behar didazu —eskatu zion aitak egongelago atetik.

—Ezin dut sinetsi; gutunak egia esaten zuen.

—Ez dizut ulertzen.

—Ez dakizu zenbat bakardade sentitu dudan, eta bat-batean zu agertu zara.

—Barkaidazu, ez naiz berriro hemendik joango.

Egun hartan aitak dena kontatu zion: hiltzaile batekin okertu zuten, eta amak familia utzi zuela pentsatu zuen, segur aski zenbait zurrumurrurengatik. Geroago hiriz aldatu zen Josurekin, lana bilatzeko. Beste aldetik Josuk ezbehar guztiak kontatu zizkion, harriarena izan ezik.

Aste bat pasa zen eta Josuk harria beste pertsona bati ematea pentsatu zuen. Alabaina, tentazio handia zeukan berriro harriari zerbait eskatzeko, nahiz eta gutunak ondorio txarrak izango zituela ohartarazi. Hala ere, ez zirela hain txarrak izango itxaropenarekin oharpena alde batera utzi zuen. Gau hartan, bere aita lotan zegoen bitartean, ezkutatuta zegoen kutxatik harria hartu zuen gutuna berriro irakurri ondoren.

Begiak itxi zituenean, ama bizirik egotea nahiko lukeela pentsatuz, harria lurrera bota zuen. Bat-batean beherantz begiratzean, harriaren azpian gutun bat zegoela konturatu zen. Gutuna hartu eta irakurri zuen:

“Ez duzu kontuan hartu emandako abisua eta orain ondorioak jasango dituzu: zure bizitza erdia gurea izango da”

Josu beldurtu egin zen. Zer esan nahi zuten horrekin? Nortzuk dira haiek? Nondik dator objektu hau? Galdera asko zituen buruan. Gau hartan ezin izan zuen lorik egin oso damututa baitzegoen; inoiz ez zuen aita ikusi eta orain azkenean elkarrekin zeudela, Josuren bizitzan berriro ezbehar bat gertatuko zen.

Goiz esnatu zen lan egitera joateko, eta etxetik atera baino lehen harria eta kutxa arroparen armairuan ezkutatu zuen aitak ez aurkitzeko asmoarekin. Pizzeriara zihoan bitartean, gutunaren oharpenari bueltak eman zizkion buruan, eta hain murgilduta zegoen bere pentsamenduetan non ez zen konturatu bere inguruko jendea espaloitik ihes egiten ari zela, eta bat-batean gertatu zen. Abiaduragatik errepidetik ateratako furgoneta batek Josu harrapatu zuen; zenbait buelta emanda ibilgailuaren gainetik lurzorua kontra jo zuen buruarekin.

—Azkenean esnatu da! —oihukatu zuen norbaitek.

Begiak ireki zituen eta albo guztietara begiratu zuen “Zer gertatu da?” “Non dago nire aita?”. Pentsatzea asko kostatzen zitzaion.

—Ongi etorri. Gehienak ez dira bizirik irteten koma batetik. —esan zuen mediku batek.

—Zer gertatu zait? Nire aita? —galdetu zuen oso ahots ahularekin.

—Entzun, duela 29 urte istripu bat izan zenuen auto batekin eta orain arte

ez zara esnatu.

—Oh, ez mesedez..

—Zure aita duela 3 urte hil zen, ia beti zegoen zurekin.

—Hau harri madarikatuaren errua da!! Hil nazazue ez dut nahi bizirik egon!! —oihukatzen hasi zen histeria-atake batean.

Gauero, ospitaleko gelan negar egiten eta harria madarikatzen egoten zen. Egunak joan eta etortzen ziren eta gero eta deprimituagoa zegoen. Ispiluan begiratzen zuenean, 52 urte zituen gizon baten aurpegi zahartua ikusten zuen eta orduan dena ulertzen zuen: hori zen harriaren asmoa, hau da, bere gaztaroa lapurtzea, eta horrela bizitza erdia kentzea.

Hiru hilabete pasa ziren eta ospitaletik atera zen. Dena aldatuta zegoen, bai mundua, bai bere burua, literalki, kalte itzulezinak baitzituen. Orain dena ahazteko egin ahal zuen gauza bakarra harria beste bati ematea zen.

Aitak ospitalean utzitako giltzei esker, bere antzinako etxera itzuli zen. Eta han, edo berak dena utzi zuen bezala zegoen, edo bere aita oso ordenatua zen, hala ere dena hautsez beteta zegoen. Egongelako arroparen armairua zabaldu eta arropen artean topatu zuen; oraindik han zegoen kutxa. Hartu eta gero kalera joan zen etxetik oso urrun ibiltzeko, eta han ikusi zuen hurrengo bezeroa, 135. zenbakiduna, kaleko izkina batean eserita, dirua eskatzen. Josu jende multzoaren artean sartu zen eta arlotearen aurretik pasa zenean, jakatik atera eta kutxa aurrean bota zion, pertsonen artean desagertu baino lehen.



Amama

*Sonsoles PachecoLarrucea,
Ikasbide HLBHIP.*

Beste begirada bat botatzen diot amak emandako paperari. Nire amonaren kalea, ataria eta pisua agertzen dira idatzita. Eskua altxatu dut, eta bosgarren pisuko txirrina jo dut atarian.

—Bai? Nor da? —galdetu du emakume batek, Rossanak, nire amamaren zaintzaileak.

—Isabelen alaba —erantzun dut, jakinda nire izena esaten badiot, ez duela jakingo nor naizen, nire amamak hogeita hamaika iloba ditu eta.

Atea ireki da, eta igogailuan sartu naiz eztarrian korapilo batekin. Nire amona ikusi nuen azkenean, nitaz beldurtu zen, nire itxuraz. Horregatik gaur ile kizkurra, kolore argietako arropa eta makillaje oso soila ditut, nire amona ez beldurtzeko asmoz.

Bosgarren pisura heldu naiz, eta Rossanak atea ireki dit irribarre gozo batekin.

—Kaixo, Rossana, amona ikustera nator. Jaikita dago?

—Bai, noski, terrazan dago —esan dit, bidea erakutsiz.

—Mila esker —erantzun diot, joan baino lehen.

Iritsi naizenean atean geratu naiz pixka bat amamari begira. Laurogei urte beteko ditu hiru hilabete barru, baina ehun edo gehiago dituela dirudi.

—Kaixo...

—Isabel! Ene, neska, zergatik ez zaude eskolan? —galdetu dit haserretuta.

Une batez ez dut jakin zer egin. Amarekin erratu nau, baina nik nire aita-ren itxura dut.

—Ama...—esan diot ahopean— Oporrak... Bai, horixe, gabonetako opor-rak dira, ama.

—Oporrak badira, zergatik ez daude etxean zure neba-arrebak? Ez esan gezurrik, Isabel, edo zigortuko zaitut —errieta egin dit, bere alaba naizela guztiz konbentzituta.

Berriro isilik geratu naiz, negar ez egiten saiatuz. Nire amona burutik jota dago, korapilo bat eginda... Nola azalduko diot hau amari? Nola esango diot bere amak ez dakiela bere alabak nortzuk diren?

—Mutu geratu zara ala? Ea, eseri hemen, ez dut jakin nahi zer egiten duzun hemen eskola egunean —adierazi du.

Esandako aulkian eseri naiz, bere alboan. Poltsikoan sartu dut eskua, tabakoaren bila, baina azken momentuan ez dut atera. Nire amamak ez zuen inoiz jakin nire amak erretzen zuela, hobeto ez egitea bere aurrean, ama naizela pen-tsatzen badu.

—Ama... Zelan zaude? —galdetu diot, isiltasuna ez mantentzeko.

—Gaur goizean bezala, Isabel —begirada arraro bat bota dit—. Zer alda-tuko da ordu batzuetan?

Hondartzarantz begiratu dut, tristura handiz. Gauza asko aldatu ahal dira ordu gutxitan, gaur egiaztatu dut.

—Ez dakit ama, zerbait esatearren zen.

—Zure aita bezalakoa zara —esan du purrustaka—. Berak ere ez zuen isil-tasuna gustuko, beti hitz egiten zegoen... Beraren falta handia sentitzen dut, Isa-bel —eskua hartu dit, dardarka dago.

—Nik ere, ama, denok bezala. Aita oso gizon jatorra zen... —erantzun dut, isilik ez geratzeko.

Egia esanda, ez nuen nire aitona ezagutu. Orain dela berrogeita hamar urte hil zen, nire amama bakarrik utziz hamaika seme-alabekin.

—Bai, oso jatorra, eta asko maite gintuen...—bere pentsamenduetan galdu da, nire eskua askatuz.

Begiratu egin diot, emakume horren bizitza gogoratzen.

Nire aitona hogeita zazpi urterekin ezagutu zuen eta bere familia bertan behera utzi zuen berarekin ezkontzeko, haiek ez zutelako onartzen berarekin ego-tea. Hogeita zortzi urterekin, lehen alaba izan zuen eta hurrengo hamar urteetan beste hamarrak. Ez dakit bere gorputz txikiak eta osasun txarrak nola jasan zituen hamaika haurdunaldi.

—Badakizu noiz itzuliko den? Orain dela asko ontziratu zen —nire mundutik atera naiz, harrituta.

—Aita? Ba...—nola esango diot hilda dagoela? Ez dit orain dela gutxi beraz hitz egin iraganean? Laster itzuliko da, ama, ziur.

—Bai, eta zuk gitarra joko duzu, beti bezala, Isabel, nik limoizko tarta egiten dudana bitartean —irribarrea dauka aurpegian—. Dena alaitasuna izango da berriro, laztana.

—Noski, ama, noski... —negar egiten hasi naiz, ezin dut irribarre gehiago egin.

—Zer gertatzen zaizu orain? Min hartu duzu? —aurpegia ukitu dit.

—Ez, ez dut minik hartu, bakarrik triste nago, ama.

—Isabel... Ez zara triste egon behar, aita itzuliko da —erantzun dit, konbentzita.

—Ez da horregatik... Zuregatik nago triste, ama —begietara begiratu diot—. Zer gertatuko da zu ez zaudenean?



Barre egiten hasi da, oso ozen, txiste bat entzun balu bezala.

—Urte asko geratzen dira horretarako, alaba, lasai egon —esan dit.

—Bai, baina gertatzen denean zer? Bakarrik geratuko gara, ama... —ene, oso azkar sartu naiz nire amaren azalean.

—Ez, Isabel, ez da horrela izango. Familia izango duzu, familia asko —barre egiten du berriro—. Hamar neba-arreba, senarra, seme-alabak... Gainera, beti gogoratuko zara nitaz, neska, ama ez da inoiz ahazten. Gogoratuko dituzu nirekin egindako gauza guztiak, nik esandako guztia. Nire aurpegiaz oroituko zara, nire

itxuraz. Ez naiz inoiz joango, beti zure barruan, zeure buruan, egongo naiz —esan dit, bekokian musu bat emanaz.

—Ama... Amona...

—Gogoratu, gogoratu beti, eta inoiz ez nauzu galduko.

Metroan nago orain, musika jarrita. Baina ez dut entzuten ezer, amonaz pentsatzen nago. Emakume berezi horretaz, laster hilko dena. Hain dago zahar...

Baina berak egia esan du. Ez badut ahazten, ez dut galduko. Beti gogoratuko dut, nirekin egongo da. Ez naiz inoiz amonarik gabe geratuko.

Murgildurik

*Nerea Martínez Alvarez,
Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI.*

Haize atseginak jotzen zuen udako arratsalde hartan. Txirikorda gorriko neskato bat bakarrik jolasten ari zen parkean. Bere amak, apur bat atzerago, asko ez urruntzeko agindu zion, baina neskatxa hain zebilen pozik jolasten... Ez zuen gelditu nahi eta ez zion amari kasurik egin. Korrika jarraitu zuen, gero eta urrunago; eta, azkenean, amaren bistatik ihes egin zuen. Baina neskatila ez zen konturatu, bere jolasean murgildurik zebilen eta.

Bat-batean dirdira bat ikusi zuen, zuhaitzen hostoak zeharkatzen zituena. Txunditurik hurbildu zen. Aintzira bat. Aintzira eder eta ikusgarri bat. Neskatoa apur bat gehiago aurreratu zen, uretan bere irudia ikusi arte. Belarretan eserita, ura hurbilago ikusi ahal izateko, beherantz begiratu zuen. Polita zen oso, inguruko gauza guztiak bezalakoa, txundigarria. Ilegorria, oso azal zuria eta begi berde handiak zituen neskatxa zen, liluragarria benetan. Bere irudiak irri egiten zuen, oso pozik. Bera zen, bai, baina zerbait gehiago zegoen, zerbait... magikoa. Eguzkiaren izpiak, txorien musika, haizearen soinua, loreen usaina... Horrek guztiak neskatxa nahasten zuen eta, ia konturatu gabe, eskua uretara hurbildu zuen, bere irudi islatuarena hartzeko.

—Zu banintz, ez nuke hori egingo —esan zuen ahots batek.

Eskua azkar urrundu zuen, ikaratuta. Buelta eman eta emakume eder bat ikusi zuen bere atzean. Emakumea hurbildu eta bere alboan eseri zen. Bere irudia ez zen oso argia. Berarengandik argi itsugarria ateratzen zenez, neskatoak ezin zuen bere aurpegia ondo bereizi. Ile marroi-gorrixka zeukan, luzea eta argala zen eta soineko zuri-morea zeraman, esertzean lurlean zehar zabaldu egin zena.

—Zergatik? —galdetu zuen neskak. Emakumeak barre egin zuen, soinu liluragarria sortuz.

—Begira ezazu berriz —eskuaz keinu bat egin zuen, aintzirara begiratzeko aginduz.

Txoriek kantatzeari utzi zioten eta eguzki izpiak ez ziren jada hain distiratsuak. Bere irudia aldatu zen, lehen ederra zena orain beldurgarri bihurtu zen. Ez zirudien pozik, haserre baizik, eta bere aurpegiaren keinua gogorra zen oraingoan. Loreen usaina ez zen lehen usaindu zuena, hain goxoa zena, orain usain nazkagarria zuten, hildako baten kiratsa zerien.

—Zer demontre...? —galdetu zuen ulertu ezinik.

—Istorio bat entzun nahi duzu? —eskaini zion emakume ederrak.

Berak baietz erantzun zion burua astinduz, eta aintziratik apur bat gehiago urrundu zen, lehen gardena zen urak orain kolore iluna hartu zuelako.

—Ume guztiak jolasean aritzen dira noizean behin, baina batzuetan jokoak irabazten du. Umeak hain daude murgildurik mundu liluragarri horretan, non ezin diren atera. Amek esaten dute “ez zaitez asko urrundu”, baina haurrek ez diete kasurik egiten —neskatxa gorritu egin zen apur bat— jolasten segitzen dute eta azkenean beren munduan galtzen dira, zu bezala. Hau ez da ohiko aintzira, neskatala, hori baino gehiago da. Aintzira honek jolasak amaitzen ez diren mundurako atea irekitzen du. Han amak ez dizu berriro esango bueltatzeko, berandu izango delako. Ez.

—Zein da arazoa, orduan? —galdetu zuen oraindik ulertu ezinik.

—Benetan, beti jolasean aritu behar duzun mundu batean bizi nahi duzu? Nik ezetz uste dut —berriz egin zuen barre— normalean gizakia ezezagunaren beldur da, baina beharbada ezagunegiaren beldur ere, larregi ezagutzen baitu, bere alderdi txarrak ere. Beti, oso denbora tarte luzea izan daiteke eta helduko da momentu bat noiz jolasa maite izango ez duzun, zure beldurrekin jolastean arituko zarelako, eta orduan, konturatuko zara zure amak ez zuela alferrik esaten urruntzean bueltatzeko. Ikusi al dituzu inguruko landareak? Ez al dira politak?

—Bai —erantzun zuen, elkarrizketaren aldaketaz harriturik.

—Bere jokoan galdu ziren haurrak dira, betiko jolastu behar dutenak —lore larrosa polit bat ukitu zuen, baina ez zen lore arrunta, neskatzak emakumearengana nola mugitzen zen ikusi zuen—. Orain nahi duten bakarra jolasteari uztea da, baina ezin dute atea zeharkatu zutelako. Ez al dituzu haien ahotsak entzuten? Isildu eta entzungo dituzu. —Egia zen, bai, oso isilik geratuz gero, zurrumurruak entzun zitezkeen, inondik ez zetozen zurrumurruak—. Egin kasu

amari, buelta zaitez, ez urrundu bizitzatik inoiz, gutxienez momentu egokia izan arte.

Irudia berriz begiratu zuen, ez oso ziur. Uretako neskatxak berriz egiten zuen irri eta eskua luzatzen zion oraindik. Bere alboan emakume ederraren irudia ere bazegoen, aingeru hegoak eta keinu gozoa zeuzkana, berak ere etortzeko eskaintzen zion, eskua astinduz.

—Oneka?! —deika ari zitzaion ama, kezkatuik— Non zaude, kuttuna?!

—Jolasten jarraitu nahi zuen, baina amarekin bueltatu ere.

—Ez fidatu! Katigatu ez zaitzan! Ez begiratu aintzira begiekin soilik, ikusten duzunaz ezin zara beti fidatu —esan zion emakume gozoak.

Neskatxak erabakia hartu zuen segundo batzuk pasa eta gero. Haize gogorra zen aintzira inguruan neska urrundu egin zenean amarekin biltzeko.

—Amaitu da —esan zuen emakumeak, bere buruarekin hitz eginez— ez duzu bere bizitza hartuko.

—Hau ez da inoiz amaitzen, etengabeko jokoa da, zuk esan diozu neskatxari, ezta? —galdetu zuen barre eginez uretatik azaleratu zen hego belzdun emakumeak.

—Ez duzu lore gehiago sortuko —irri egin zuen emakume ederrak.

—Beno, jokaldi asko gelditzen dira, beti denbora tarte handia da. Ikusi beharko dugu —barre beldurgarria egin zuen eta hego beltzek inguratu zuten soineko zuria zeraman emakumea. Berriro, hainbeste alditan bezala, uretan murgildu eta jokoa berriz hasi zen aintzirako emakumeen artean, gauza onen eta gauza txarren arteko borroka, mundua baino zaharragoa den joko amaiezina.



Emakume gaixoa larritzen hasi zen.

—ONEKA —ohiukatu zuen.

—Hemen naiz ama —erantzun zuen neskatxa ilegorriak.

—Oneka! —malkoak zituen begietan eta alaba ikustean besarkatzeko korrika egin zuen— Non zeunden? Oso kezkatuik egon naiz maitea, ez dakizu nola...

—Lasai ama, oso emakume jator batekin aritu izan naiz hizketan.

—Emakume jatorra?

—Bai ama, aingeru bat izan da, ziur nago. —gutziz konbentziturik esan

zuen— Nitaz arduratzen den aingerua, zurekin bueltatzeko esan didana eta berari esker hemen nago, amatxo.

—Ongi da, kuttuna —esan zuen emakumeak bere alabaren irudimena mi-
retsiz eta bere ilegorria laztanduz—. Goazen etxera.

Eta honela, eskutik helduta, urrundu egin ziren gaua heldu baino apur bat lehenago, itzalak berriz dena hartu baino lehen. Momentu hartan, Onetak ez zuen gertatutakoa ulertu. Beharbada, orain gogoratuko balu, elkarrizketa arraro bat baino gehiago izan dela ulertuko luke, baina ezin izango dugu inoiz jakin, ahaztu egin duelako.

Haurtxo txikiei behin baino gehiagotan esan ohi diegu “ez egin horrelakorik, txarto dago”; baina momentu bat heltzen da, noiz haiek gauza onak eta txarrak desberdintzen jakin behar duten. Behin baino gehiagotan akats bat egin eta bide txarra aukeratzen dugu, batzuetan ez da akats handia; baina beste batzuetan, izugarrizko ondorio txarrak ekar dakizkiguke. Normala da noizbehinka okertzea eta gauza txar bat egitea. Horiek ere existitu behar dute gauza onak ere izateko. Bata ezin da bestea gabe egon, argirik gabe itzala bezala, heriotzarik gabe bizitza, maitasuna gorrotorik gabe... Hainbat adibide daude. Bizitza haien arteko jolas amaiezina da.

“Ciao Babakar!”

*Maider Zalbidea Pardo,
Deustuko Ikastola IPI.*

Eserita. Berriro dago eserita. Egu-
nero supermerkatu sartzeko
naizenean berak “egun on” e-
saten dit. Alde egiten dudanean, ese-
rita jarraitzen du eta irribarre batekin
“agur” esaten dit.

Bera ez da hemengoa, kanpo-
tarra da. Beltza da eta eserita egonik,
txanpon batzuk eskertzen ditu. Eskalea
da.



Uda denean, kartoizko kutxa baten gainean egoten da eserita, eguzkitan,
eta soberan dituzun txanponak eskertzen dizkizu. Neguan, txanoa buruan eta
erdi dardarka “eskerrik asko” esaten dizu, zuk txanponak eman ondoren.

Urte bat darama, gutxienez, supermerkatuaren sarreran eserita.

Egun batean urdaiazpikozko bokata bat erosi nion eta ematerakoan za-
lantzan egon nintzen, musulmana baldin bazen ezin izango zuelako txerrikia
jan... Berak hartu zuen, bihotzez eskertu zidan eta jaten hasi zen. Irribarre handi

batekin supermerkatuaren sarreran gelditu zen eserita, beti bezala.

Beste egun batean, bere lagun batekin “arraro” hitz egiten ikusi nuen eta agurtzerakoan “Ciao Babakar!” entzun nuen. Txanpon batzuk emanez “Agur Babakar!” esan nion. Harrituta begiratu zidan eta segundo batzuk geroago, berriz ere, “agur eta eskerrik asko” esan zidan.

Oso eguraldi txarra egin zuen arratsalde batean, kafe bat hartzera gonbidatu nuen. Hitz egiten hasi ginen eta bere istorioa ezagutzen hasi nintzen.

Babakar Bioko irlan jaio zen, Baka herrian, orain dela 25 urte. Bioko Ginea Ekuatorialen dago. Bere amaren hizkuntza “bubia” da eta gaztelania ezagutzen du, Ginea Espainiaren kolonia bat izan zelako. Biokon uztailetik urtarilerara arte euria egiten duela esan zidan.

Babakar oihanean bizi zen, bere familiarekin batera. Bere familiak kakao-landetxe batean lan egiten zuen. Bertan, bizitza ez zen batere erraza eta hona etorri zen bere bizimodua hobetzeko asmoz... Baina hemen krisialdian sartuta gaudenez, gaur egun berarentzat ez dago lanik.

Batzuetan, emakume baten poltsak eramaten ditu eta hari laguntza ematearen truke txanpon batzuk jasotzen ditu. Besteetan, supermerkatuaren sarreran txakur bat zaintzen gelditzen da, jabearen zain, eta horregatik ere txanponak jasotzen ditu. Beste pertsona batzuek nahi dugulako ematen dizkiogu txanponak, bera hobeto bizi izatea nahi dugulako.

Niri Babakarrekin hitz egitea asko gustatzen zait. Bere kultura, familia edo herriari buruz berbetan egoten garenean, bera pozik egoten delako, eta ni askoz gehiago, eta asko ikasten dudalako.

Baina niretzat garrantzitsuena bere betiko agurra eta irribarrearekin ikustea da.

Agian, egunen batean ez dut supermerkatuaren sarreran ikusiko lana topatu duelako eta bere ametsa betetzea lortu duelako.

ZORTE ON BABAKAR!

Oharra: zein ondo bizi garen Euskal Herrian, konturatu barik...



Zoramena

*Iñaki Erkizia Ateka,
Artxandape Ikastola HLBHIP.*

Inoiz ez al diozue zeuen buruari galdetu munduaren sorrerari buruzko arrazoirik badagoen ala ez? Ezta hil eta gero gure arima nora joaten den, ezta ere? Ezetz? Ezin dut sinetsi. Bada, nik halakorik ez ulertzearen sentsazio hori ez dut ezagutzen. Denetarik ezagutzen dut; jendea, janariak, jokoak, sentimenduak... baina ez daukat hori ezagutzeko zorterik. Orojakilea deitzen naute batzuek, baina zergatik? Ez dut uste guzti-guztia dakidanik, bizitzaren grazia joango zitzaidalako hala izatekotan. Eta ni zoriontsu naiz, gutxienez hala uste dut, hori da nahikoa pentsatzen dudana justifikatzeko.

Nire amak zoratuta nagoela dio. Nik jaramonik ere ez diot egiten horri, memelkeria hutsak baitira. Medikuarenera goazenean zelatan egoten naiz beti, amantaldun gizajo horrek oraingoan zer asmatu ote duen jakin nahian. Hura sinetsiko banu, nire botereak gezurretakoak direla pentsatuko nuke, baina nahiago dut hori ez pentsatzea. Beraz, medikuari ez sinestea, segidan, amak eta amantaldun tontolapiko horrek “zoroen gauzak” bezala izendatzen duten jarrerak izaten jarraitzea eta azkenik, sendatzeko pilulak gero eta maizago kontsumitzea.

Baina hori guztia berdin zait. Akaso emakume hori ikusterakoan, ilobari eskutik heltzen ziola ikusterakoan, mediku horrek ba al zekien 100 metro aurre-

rango zeuden bahitzaileek bi pertsona inuzente horiek bahituko zituztela? Eta ba al zekien momentu hartako une hartan elurra egiten hasiko zela? Ez, ezta? Nik bakarrik dakit egia, bestean ikuspuntutik ulertezin diren gauzak ulertzeko gai naiz. Inozoak!

Jada dakizuenez, asko dakit bizitzari buruz. Inork ez nau sinesten, baina zuek, irakurleok, sinesten nauzue, ziur nago. Beno, harira noa. la egunero ikusten dut nire jainkoa, eta ez pentsa zuen jainko bera denik, ez. Nire forma eta izaera berdineko jainko batez ari naiz. Oraingoan esan dit, nire ahalmenetan, pentsamenduetan eta nire esanetan konfiantza jartzen dituztenei zuzenezko bidea erakusteko. Ez ditut oso ondo ulertu esandako horiek, baina suposatzen dut zuei erakutsi behar dizuedala bidea. Bideari jarraituta bizitzaren pozoia saihesten lortzen da; ilobarekin zegoen anderearen kasua, elurrarena... guztia dago baldintzatuta. Inguruko jendea ondo portatzen bada munduko beste izaki edo elementu guztiekin, gertaerek txip baikorra ordezkatzan dute. Ematen duenak gehiago jasotzen du, hori da gakoa. Zergatik murgildu gatazketan, irainetan babestu eta berehala amore eman? Ametsei jarraitu behar diegu, baina bide zuzenetik.

Zuen pentsamenduekin uzten zaituztet, nire gauzetan pentsatu beharra baitaukat. Eta gogoratu, batzuek nik daukadanari zoramena deitzen diote; baina nik, berriz, arimaren salbazioa.



Aurkibidea

Alkatearen agurra.....	3
Sariak.....	4

A kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Aker zuri.....	9
• Pelutxe baten bizitza.....	11
• Gernikako iskanbila.....	14
• Leonardo katua.....	16
• Anthonyren istorioa.....	18
• Denboraren bidaia.....	20

B kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak)

• Oroitzapen bila.....	25
• Jendeak ez zuela tolerantziarik.....	27
• Ni Norvegian.....	29
• Ametsak egia bihurtu daitezke.....	32
• David eta “tximeleta begizta”.....	34

C kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak)

• Irrazionalen eta perfektuen arteko lehia.....	39
• Diferentea naiz.....	44
• Ambrosioren bizitza.....	48
• Iraganak urratzeak uzten ditu.....	51
• Juantxo txikia.....	53
• Sagu tranpa.....	56

D kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Urtarrilak 27.....	61
• 134. bezeroa.....	66
• Amama.....	70
• Murgildurik.....	74
• Ciao Babakar!.....	78
• Zoramena.....	80

batekin supermerkatuaren sarreran gelditu zen eserita, beti bezala.

Beste egun batean, bere lagun batekin “arraro” hitz egiten ikusi nuen eta agurtzerakoan “Ciao Babakar!” entzun nuen. Txanpon batzuk emanez “Agur Babakar!” esan nion. Harrituta begiratu zidan eta segundo batzuk geroago, berriz ere, “agur eta eskerrik asko” esan zidan.

Oso eguraldi txarra egin zuen arratsalde batean, kafe bat hartzera gonbidatu nuen. Hitz egiten hasi ginen eta bere istorioa ezagutzen hasi nintzen.

Babakar Bioko irlan jaio zen, Bace herrian, orain dela 25 urte. Bioko Ginea Ekuatorialen dago. Bere amaren hizkuntza “bubia” da eta gaztelania ezagutzen du, Ginea Espainiaren kolonia bat izan zelako. Biokon uztailetik urtarilerara arte euria egiten duela esan zidan.

Babakar oihanean bizi zen, bere familiarekin batera. Bere familiak kakao-landetxe batean lan egiten zuen. Bertan, bizitza ez zen batere erraza eta hona etorri zen bere bizimodua hobetzeko asmoz... Baina hemen krisialdian sartuta gaudenez, gaur egun berarentzat ez dago lanik.

Batzuetan, emakume baten poltsak eramaten ditu eta hari laguntza ematearen truke txanpon batzuk jasotzen ditu. Besteetan, supermerkatuaren sarreran txakur bat zaintzen gelditzen da, jabearen zain, eta horregatik ere txanponak jasotzen ditu. Beste pertsona batzuek nahi dugulako ematen dizkiogu txanponak, bera hobeto bizi izatea nahi dugulako.

Niri Babakarrekin hitz egitea asko gustatzen zait. Bere kultura, familia edo herriari buruz berbetan egoten garenean, bera pozik egoten delako, eta ni askoz gehiago, eta asko ikasten dudalako.

Baina niretzat garrantzitsuena bere betiko agurra eta irribarrearekin ikustea da.

Agian, egunen batean ez dut supermerkatuaren sarreran ikusiko lana topatu duelako eta bere ametsa betetzea lortu duelako.

ZORTE ON BABAKAR!

Oharra: zein ondo bizi garen Euskal Herrian, konturatu barik...



Zoramena

*Iñaki Erkizia Ateka,
Artxandape Ikastola HLBHIP.*

Inoiz ez al diozue zeuen buruari galdetu munduaren sorrerari buruzko arrazoirik badagoen ala ez? Ezta hil eta gero gure arima nora joaten den, ezta ere? Ezetz? Ezin dut sinetsi. Bada, nik halakorik ez ulertzearen sentsazio hori ez dut ezagutzen. Denetarik ezagutzen dut; jendea, janariak, jokoak, sentimenduak... baina ez daukat hori ezagutzeko zorterik. Orojakilea deitzen naute batzuek, baina zergatik? Ez dut uste guzti-guztia dakidanik, bizitzaren grazia joango zitzaidalako hala izatekotan. Eta ni zoriontsu naiz, gutxienez hala uste dut, hori da nahikoa pentsatzen dudana justifikatzeko.

Nire amak zoratuta nagoela dio. Nik jaramonik ere ez diot egiten horri, memelkeria hutsak baitira. Medikuarenera goazenean zelatan egoten naiz beti, amantaldun gizajo horrek oraingoan zer asmatu ote duen jakin nahian. Hura sinetsiko banu, nire botereak gezurretakoak direla pentsatuko nuke, baina nahiago dut hori ez pentsatzea. Beraz, medikuari ez sinestea, segidan, amak eta amantaldun tontolapiko horrek “zoroen gauzak” bezala izendatzen duten jarrerak izaten jarraitzea eta azkenik, sendatzeko pilulak gero eta maizago kontsumitzea.

Baina hori guztia berdin zait. Akaso emakume hori ikusterakoan, ilobari eskutik heltzen ziola ikusterakoan, mediku horrek ba al zekien 100 metro aurre-

rango zeuden bahitzaileek bi pertsona inuzente horiek bahituko zituztela? Eta ba al zekien momentu hartako une hartan elurra egiten hasiko zela? Ez, ezta? Nik bakarrik dakit egia, bestean ikuspuntutik ulertezin diren gauzak ulertzeko gai naiz. Inozoak!

Jada dakizuenez, asko dakit bizitzari buruz. Inork ez nau sinesten, baina zuek, irakurleok, sinesten nauzue, ziur nago. Beno, harira noa. la egunero ikusten dut nire jainkoa, eta ez pentsa zuen jainko bera denik, ez. Nire forma eta izaera berdineko jainko batez ari naiz. Oraingoan esan dit, nire ahalmenetan, pentsamenduetan eta nire esanetan konfiantza jartzen dituztenei zuzenezko bidea erakusteko. Ez ditut oso ondo ulertu esandako horiek, baina suposatzen dut zuei erakutsi behar dizuedala bidea. Bideari jarraituta bizitzaren pozoia saihesten lortzen da; ilobarekin zegoen anderearen kasua, elurrarena... guztia dago baldintzatuta. Inguruko jendea ondo portatzen bada munduko beste izaki edo elementu guztiekin, gertaerek txip baikorra ordezkatzan dute. Ematen duenak gehiago jasotzen du, hori da gakoa. Zergatik murgildu gatazketan, irainetan babestu eta berehala amore eman? Ametsei jarraitu behar diegu, baina bide zuzenetik.

Zuen pentsamenduekin uzten zaituztet, nire gauzetan pentsatu beharra baitaukat. Eta gogoratu, batzuek nik daukadanari zoramena deitzen diote; baina nik, berriz, arimaren salbazioa.



Aurkibidea

Alkatearen agurra.....	3
Sariak.....	4

A kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Aker zuri.....	9
• Pelutxe baten bizitza.....	11
• Gernikako iskanbila.....	14
• Leonardo katua.....	16
• Anthonyren istorioa.....	18
• Denboraren bidaia.....	20

B kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak)

• Oroitzapen bila.....	25
• Jendeak ez zuela tolerantziarik.....	27
• Ni Norvegian.....	29
• Ametsak egia bihurtu daitezke.....	32
• David eta “tximeleta begizta”.....	34

C kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak)

• Irrazionalen eta perfektuen arteko lehia.....	39
• Diferentea naiz.....	44
• Ambrosioren bizitza.....	48
• Iraganak urratzeak uzten ditu.....	51
• Juantxo txikia.....	53
• Sagu tranpa.....	56

D kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Urtarrilak 27.....	61
• 134. bezeroa.....	66
• Amama.....	70
• Murgildurik.....	74
• Ciao Babakar!.....	78
• Zoramena.....	80



Bibao

UDALA
AYUNTAMIENTO